

6

**Idazkiak**

Alegazio-idazkia: trafikoko salaketa-agiriei aurre egiteko bidea

16

**Lanean euskaraz**

Nola nabarmendu euskara testu elebidunetan?

18

**Erreportajea**

Ibarretxeren proposamen politikoaren gaineko ikuspegi akademikoa

**Jon Sarasua:**

**“Ez dut oso gogoko euskalgintzaren aurkako ‘eraso’ horiei erantzuteko dinamikan sartzea, dinamika horrek euskalgintzaren iparra lausotzen duelako”**



Bertsogintzan hainbat urte eman ondoren utzi zituen plazak Jon Sarasuak, baina ez du, hala ere, bertsolaritza erabat baztertu: gaur egun *Bertsozale Elkarte*a-ren partaide dugu.

Horrela, oholtzetan agertu gabe ere, alorreko beste kontu batzuen ardura du Jonek: bertsolaritzaren hedapena, transmisioa, bilketa-ikerketa... Euskalgintzarekin ere arduratsu dabilkigu; bere ustez, euskalgintzarako oinarri batzuk jadanik iradokita egon arren, eta gizarte-sarean nahiko energia egonda, errealitatean badirudi ez dela mamitzen ari.

10. or.



## 1936-1939ko gerra: errepresaliatuen duintasunaren alde

Espanian eta Euskal Herrian bertan egindako zenbait indusketa historiko-arkeologikoez agerian utzi dituzte 1936-1939ko gerran izandako sarraskiak; hainbat eta hainbat familian barneratutako zauriak guztion aurrera plazaratu dira. Jakin ahal izan dugu zer nolako ahaleginak egin dituzten eta egiten ari diren azkenaldian hildako askoren familiak, arbasoen duintasuna berreskuratzeko. Guk aukera izan dugu garai hartan tiroz hildako gizon baten bi alabekin hitz egiteko.

13. or.

**Eztabaida:**

**Familia eta laneko ardurak bateragarri egiteko erakundeek hartutako neurriak nahikoak al dira?**

Gizonezkoekiko berdintasun eskubideak aldarrikatuz emakumea etxetik irten eta kanpoan lanean hasi zenetik, familia eta etxea zaintzeko arazoak sortu dira. Nola egin bateragarri familia eta etxeko ardurak? Nahikoa al da Eusko Jaurlaritzak onartutako Familien Laguntzarako Erakunde arteko Plana? Gizartean ahotik ahora dabilen gai honen guztiaren inguruan euskal gizarteko hainbat ordezkariaren iritziak jaso nahi izan ditugu, hona ekartzeko.

20. or.

Adierazpen-askatasunaren alde:  
**EUSKAL PRENTSARI ERASORIK EZ!**



PAPER  
BIRZIKLATUA

**Zuzendaritza:**  
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

**Koordinatzailea:**  
Joseba Lozano

**Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea:** Itxaropena S.A.

**Marratzkiak:** Concetta Probanza

**Zerbaki honetako lankideak:**  
Begoña Basterretxea, Iñaki Chueca, Karlos Del Olmo, Jexux Eizagirre, Estibalitz Ezkerra, Gotzon Hermosilla, María Lizardi, Joseba Lozano, Luma, Martintxo, Eneko Olasagasti, Eneko Oregi, Nerea Pikabea, Josemari Robles, José Antonio Rodríguez, Rosa Mari Urrutia, Roldán Jimeno.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkarian argiratutako artikulua berridatz daitezke, bai osorik, bai zatika, baina artikulua nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak ez ditu derrigorrez bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

# ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

ISSN: 1576-5563. **Legezko Gordailua:** BI-1141-93. **Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea Donostia-San Sebastián 1. 01010 VITORIA-GASTEIZ. Tel. 945 01 76 00. /<http://www.ivap.org>

## PERTSONAIA

# Lucia Lacarra: “Dantzan egitea behar-beharrezkoa da nire bizitzan”



**“Handia egiten naizenean dantzari izango naiz”. Horixe esaten zion behin eta berriz Luciak amari hiru urte zituenetik. Esan eta egin. Munduko agertoki garrantzitsuetan dantzan egin du baleteko dantzari beltzaranak. Zumaian sortu zen orain dela 27 urte. Obra dramatiko eta pasiozkoak dantzatzea gustatzen zaio batez ere. 2001eko munduko dantzari onenari emandako saria jaso du orain dela gutxi. Une honetan Muniche bizi da, baina Marseillatik erantzun ditu egindako galderak.**

### Txiki-txikitatik dantzari izan nahi izan duzu?

Bai, hiru urte nituenetik. “Ni dantzaria izango naiz” esaten nuen. Harritzeko da, zeren familia ez da inoiz dantzaririk izan. Zumaian akademia ireki zutenean, bederzti urterekin hasi nintzen dantzan ikasten. Uda batez amak Tarragonara eraman ninduen udako ikastaro batera, errealitatearen gogortasunaz ohartzeko.

### Errealitate horri aurre egin eta Madrilen amaitu zenuen azkenean hamalau urterekin...

Halaxe da. Victor Ullateren eskolan lehenbizi eta bere konpainian gero. Oso gaztea nintzenez amak asko lagundu zidan. Konpainia neoklasikoa zen, eta beraz, dantza laburrak dantzatzen genituen. Dantza teknikoagoa zen, eta nik balet artistikoagoa egiteko gogo nuen: istorioak eta pertsonaiak dituen baleta nahi nuen nik.

### Gogo horrek bultzatuta joan zinen Marseillara?

Bai, hemezortzi urterekin izan zen hori. Dantza kontuetan ikasteko eta ezagutzeko asko dagoela pentsatu izan dut beti. Gauza berriak ikasteko gogo sortu zitzaidan, eta Marseillara joan nintzen. Han, Roland Petiten konpainian hiru urte eman nituen eta bere erreperitorio osoa interpretatu nuen.

### Jauzirik handiena, ordea, Estatu Batuetara joatea izan zen...

San Franciscora joan nintzen esperientzia berrien bila. Han pentsamolde berri bat aurkitu nuen. Ameriketako gizartea oso lehiakorra da, baina pixkanaka nire lekua egin nuen. Nire ustez, baleta egiten dugunok eduki dezakegun kultur aberastasuna da gure erreperitorioa.

### Dantzari ona izateko elastikotasuna, oin finak eduki behar omen dira...

Gauza guztien gainera emozio-egonkortasuna behar da. Egutero borrokan egitea eska-

tzen duen mundua da dantzarena. Noski, ezaugarri fisikoak ere garrantzitsuak dira, baina gaur egun ez dira ezinbestekoak.

### “Dantza berezkoa eta beharrezkoa da niretzat: bizitzeko modu bat”. Zuk esana.

Nik ez nuke jakingo nire bizitzan dantza besterik egiten. Dena den, norbere buruarekin zintzoa izatea ere garrantzitsua da. Norberak bere estiloa zein den, noraino hel daitekeen eta bere mugak non dauden jakin behar du.

### Obra dramatikoak eta pasiozkoak nahia-go dituzu...

Dantzaren bidez sentimenduak adieraztea gustatzen zait. Gorputza jartzeaz gainera, bihotza jartzen saiatzen naiz. Pasioa jarri behar da. Publikoarekin bat egin eta sentitzen dudana transmititu egiten dut. Sentimendu horiek transmititu ahal izateko, lehenengo bizi, sentitu egin behar dira. Eta horretarako, noski, bizitza pribatu bat eduki behar da.

### 2001eko munduko dantzari onena ere ba omen zara...

Hala dirudi. Monakon jaso nuen Nijinski sariari esker izan da. Dantzaren alorreko hainbat adituk eta kazetarik osatzen dute epaimahaia. Ate asko irekiko dizkidala uste dut. Nire familiakoekin eta herritarrekin ospatzeko aukera izan nuen abenduan nire jaioterrian egin zidaten omenaldian.

### Eta orain zer duzu eskuartean?

Momentuz apirilaren 22an Moskuko Bolshoi teatroan ospatuko den sari banaketa batera joango naiz. Sari hori jasotzeko izendatuen artean nago. Horrez gainera, abuztu osoa Japonian egingo dut. Bi obra dantzatuko ditut han: “Notre Dame-ko konkorduna” eta Duke Ellingtonen musikan oinarritutako obra bat.

**Nerea Pikabea**  
Kazetaria

# Egunkaria **AURRERA !!**

**E**uskaldunon *Egunkaria* otsailaren 20an itxi zutenetik hemen gabilta asko eta asko –batzuk maiz eta beste batzuk maiz samar– gai berari eragiten. Hobeto esanda, gai horrek berak sartu gaitu zurrunbiloan eta, barruan harrapatuta, bira eta bira garabiltza, amasa hartu behar eta, irteteko ahaleginean.

“Nunca mais” zabaltzen hasi eta ez berehala, baina bai nahiko azkar “Galicia más que nunca” hasi zitzaizkigun esaten goi-goiko arduradun prestuak. Bertsolariaren bat-bateko erantzuna! Beren kabuz asmatua? Ez dut uste. Aholkulari trebeak dituzte, antza, aholkulari iaioak argumentuei buelta ematen eta hitz jokoak egiten. Espainiako ministro bati ere entzun nion, geroxeago, euskararen onerako zela *Egunkaria* kentzea. Bapo, motel! Bai irauli ere argudioa! Guk ez genuen hori uste behintzat! Niri, txikitan eta gaztetan egundoko amorrua ematen zidan –eta orain ere ematen dit– zer edo zerekin konbentzituta egon eta, hain zuzen, kontrakoa zela benetakoa esaten zidatenean. Oraingoan ere hori erakutsi nahian ari zaizkigu, baina berotu beharrean, hau pentsatzen saiatu naiz: “Hi, bada, jaun horrek hori esan badu, agian hala izango duk”. Eta esperantza horretan nago.

Esperantza horretan? Beno, badakit kontraesan ugari ageri dela auzi honetan. Hamar lagun atxilotu zituzten basakris-tau arrisksuak zirela-eta; zazpi libre utzi dituzte igurtzi batzuk egin ondoren, 12.000 eta 30.000 euro bitarteko fidantzak ordainduta. Igurtzi latzena sinisten dut, zer bada? Halakoak izan ziren-eta. Fidantzak ordaindu eta halako giza-piztiak libre uztea... ez dakit, ba, ez dakidanez. Horrelako kontraesanak. *Egunkaria* ixteak emaitza onak ere ekarri dizkigu: hurrengo egunean, ttak, han agertu zen *Egunero*, lumarik gabeko txita, laster asko hegazti eder egiten ari dena, eta harpidedun piloa lortu du dagoeneko; euskararen, *Egunkaria*-ren eta iritzi askatasunaren aldeko manifestazio jendetsuak edonon izan dira gurean, baita kanpoan ere batzuk, eta hala jarraituko dute. Ixtearen kontrako eta berriz zabaltzearen aldeko sinadurak zenbat? Zenbat elkartasun-adierazpen? Erakunde nagusiek ere aldeko deklarazioak egin dituzte eta irmo jarduteko asmoak agertu. Ez al dira emaitza onak? Ministroak arrazoi.


Kontuz, ordea: lehoia gorra da, atzaparka ari da eta solte dabil. AEK-k igerri zion, *Jakin*-ek, Ikastoletako Federazioak, *Argia*-k hurre ikusi dute, Arantzazuko fraileak ere Ama Birjinak salbatu zituen azken orduan... Eta *Karmen*, *Zer*, *Administrazioa Euskaraz* eta antzekoen usaina ere aditu du. Argi eta prest, beraz.

**Kaxildo Alkorta**  
Laguna

## JOXERRA INTERÍNEZ

BEHIN BEHINEKO FUNTZIONARIOA

interinez@mindless.com



**Gutunak makinaz idatzi eta, gehienez ere, 15 lerro izango dituzte. Gutunarekin batera, nahitaez, igorlearen izen-abizenak eta NANA adierazi beharko dira. Jasotako gutunak ez dira itzuliko. Toki-arazorik izanez gero, ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak eskubide osoa izango du gutunak laburtuta argitaratzeko. Halaber, ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak bere erantzuna eman ahalko du sail honetan bertan.**

# Euskara eta antzerkiaren arteko harremana azken 25 urteetan

Azken hogeita bost urteetan euskara eta antzerkiaren arteko lotura bizi izan dudaren aldetik heldu nahi nioke lantxo honi. Ez dezala nire irizkiak aditu edo jakitunaren trazarik hartu, baizik eta, batzuetan erne, besteetan nagitsuago, bizi eta ikusi dudan harreman zail eta nahitaezkoaren adierazgarri soila.

## Antzerki amateurra

Hirurogeita hamargarren hamarkadan euskarak antzerki amateurrean zuen bizilekua. Oparoa, ugaria zen orduko antzerkia. Iparralde zein Hegoaldean egiten zen, jokamolde tradizionalak landuz eta, neurri apalagoan, joera berriak gurera ekartzen saiatuz ere. Esan daiteke harremana bizia zela euskara eta antzerkiaren artean, baina orduko hura pagotxa zenik ere ez dugu esango: baziren euskalkian egindako lanak eta batuan moldatutakoak –euskara batuak oraindik ibilbide luzea falta zuen jendearen belarrietara goxo eta ulerkor heltzeko–; bazen herri antzerkia eta antzerki kultoagoa, nolabait esateko; baziren euskaraz idatzitako lanak eta beste hizkuntzetatik itzulitakoak. Dena dela, edozein zela ere antzerki lanaren jatorria edo izaera, prozesu osoa euskaraz burutzen zen beti, hau da, antzerki taldeetan euskaraz egiten zen lana. Testuinguru horretan, hamarkadaren bigarren zatian antzerki independente eta profesionaleko taldeak sortzen hasi ziren, baina gaztelaniaz egiten zuten lana, edota bestela, elebitan.

## Profesionalizazioa

Hurrengo hamarkadan aldaketa handiak izan ziren. Eusko Jauriaritzak antzerki eskola sortu zuen, *Antzerti*, eta honek haustura ekarri zuen ordurarte lan egiten zutenekin. *Antzerti*-k *Troiarrak* eta *Arlekino* antzezlanak gaztelaniaz prestatu zituen lehenengo, eta gero euskarara pasatu. Jokabide honek norabidea seinalatu zuen, eta aurrerantzean horrela jokatu zuten antzerki konpainia gehienek, eta berdin jarraitu zuten laurogeita hamargarren hamarkada osoan ere. Euskarazko antzerki amateurra, salbuespenak salbuespen, amildegian behera abiatu zen, talde gehienak desagertu ziren arte. Horrela, herri antzerkiak bere leku naturala galdu zuen; talde profesionaletan ordea, Maskarada eta Kukubiltxo ziren euskara hutsez jarduten zuten talde bakarrak, eta hauek ere bertsio elebidunak egiteari ekin zioten geroxeago, laurogeita hamarreko hamarkadan (talde hauen kasuan, beti ere, lehen bertsioa euskaraz egiten zen).

## Ahozko moldearen eredu falta

Erabilitako euskararen garapenari erreparatu, hasierako urteetan euskara batuak ez zuen, oraindik, behar besteko

malgutasunik. Testuen itzulpenak gordinegiak ziren eta, bestetik, aktore askok euskara-maila eskasa zuten, edota, izan gabe ere, ahozko moldearen estandarra falta zuten. Euskalkiak ez ziren antzerki profesionalean erabili laurogeita hamarreko azken urteetara arte: *Ama begira zazu*-k mugarrira mar-katu zuen, eta hortik aurrera euskalkiak hobeto ikusiak izaten hasi ziren, batez ere gipuzkera. Obra horrek eragin zuzena izan zuen herri euskararen erabileran, baina ez dugu ahaztu behar Iparraldean antzerki amateurrek lehengo indarra gordetzen zuela, eta babesa ematen ziela besteko ikusleek arazoak zituzten beste aldekoen euskalkia ulertzeko, eta fenomeno horrek alde bien arteko muga handitu egiten zuen. Hortaz, herri antzerkiak bete zitzakeen bi rolak, alegia, euskalkiei eustea eta batuari garatzeko esparrua ematea, ez zituen bete. Esandako guztiagatik, laurogeigarren eta laurogeita hamargarren hamarkadak ez ziren batere goxoak izan euskararentzat, nahiz eta antzerkigintzaren beste arloetan aurrerapauso nabarmenak egin ziren.

## Itxaropenerako zantzuak

Aurrera begira, bada zenbait datu itxaropentsu. Batetik, esanak esanda ere, euskara batuaren ahozko moldea finkatuz doalako; asko lagundu du, horretan, euskarazko telebistak. Telebistak berak ere, azken aldiari euskalkiei ateki ireki dizkie eta euskaldunon belarriak euskalki diferentiek zutera ohituz doaz horri esker. Bestalde, azken bi urteetan sortu dira euskaraz jarduten duten antzerki taldeak, eta antzezlanak prestatzen dituzten idazle berriak. Antzerki amateurren berpiztea badenaren seinaleak badira eta, orain lehen baino gehiago, beharrezkoa dirudi antzezlanak errentagarri izan daitezen, arlo honetan ekonomiak hartu duen garrantzia handia baita. Etekinak behar dira, edo, gutxienez, diru galerarik ez. Idazle euskaldun gehiago antzerkira hurbiltzen den neurrian bermatuago izango dugu, etorkizuna ez bada, oraina bai behintzat.

Nire uste apalean, egun, telebistaren esku dago euskalkiak zabaltzearen lana; antzerkiak, bere aldetik, euskara duintzeko izan dezakeen indarra berreskuratu dezake. Baina horretarako behar da, batetik, ahozko eredu estandarrean aurrerapausoak ematea, eta bestetik, antzeppen lanaren prozesua euskaraz izatea bermatuko duen zerbait... Jakin badakit zaila dela, baina ezin da prozesu hori libre utzi, idazleen edota enpresen eskuetan. Bukatzeko, barkatuko didazue baina, ezinbestekoa gertatzen zait arlo hau osorik babestuko lukeen “Antzerki Nazional” baten beharra aldarrikatzea.

**Eneko Olasagasti**  
Antzerkiko zuzendaria

# Alegazio-idazkia

Autoan gerrikorik gabe joateagatik-edo Ertzaintzak trafikoko salaketa-agiria egiten digunean, administrazioak gure aurkako zigor-espeditenteari emango dio hasiera egun hartako dataz. Oro har, espeditentearen prozedura hauxe izan ohi da, salbuespenak salbuespen:

## SALAKETA-AGIRIA

Trafikoko araua hautsitako une berean, ertzainak salaketa-agiria emango digu, bertatik bertara emateko eragozpenik ez bada (radarrez salatutakoekin gertatzen den modura). Agirian, datu hauek aurkituko ditugu:

- Zein ekintza dela bide hautsi dugun araua.
- Non eta noiz hautsi dugun (eguna eta ordua).
- Espediente-zenbakia.
- Prozedurak iraingitzen duen epea (sei hilabete ala urtebete).

## SALAKETA-JAKINARAZPENA

Lurraldeko (Arabako, Bizkaiko edo Gipuzkoako) espediente-instruktoreak bidaliko digu. Jakinarazpena jasotzeko epeak ondokoak dira:

- Isuna arina bada (125,25 € edo gutxiago): 3 hilabete
- Isuna larria bada (125,25 € eta 250,50 € bitartekoa): 6 hilabete.
- Isuna oso larria bada (250,50 € eta 551 € bitartekoa): urtebete.

Jakinarazpena jasotzeko epeak araua hautsitako eguna du hasiera. Epe hori pasatuta jakinarazpena jasotzen badugu, berori da nahikoa arrazoi alegazio-idazkia jartzeko, isunak preskribatu egin baitu.

## ALEGAZIO-IDAZKIA

Herialdeko (Arabako, Bizkaiko edo Gipuzkoako) Trafiko Lurralde Bulegora bidali behar dugu, jakinarazpena jaso eta hamabost egun baino lehen (jai-egunak kenduta).

## ZEHAPEN EBAZPENA

Ebazpen honek erabakitzen du, gure alegazioak aztertu ondoren, isunik ordaindu behar dugun (edo bestelako zigorrik) ala ez. Legearen arabera, Lurralde Bulegora alegazio-idazkia bidali genuen egunetik hasita, administrazioak hiru hilabete baino lehen idazkiren bat bidali behar digu. Hiru hilabete isilik pasatuta isunaren jakinarazpena jasoko bagenu, berori da nahikoa arrazoi gorako errekurtsua jartzeko, izan ere isunak preskribatu egin baitu, nahiz eta zure kontrakoa izan.

Araua hautsi zuen ekintza hura egin genuen egunetik hasita zehapen ebazpena eman arte 6 hilabete pasatu badira (edo urtebete zigor larri eta oso larrietan), prozedurak iraungi egi-

ten du. Alegia, “kadukatuta” gelditzen da. Prozedurak iraingitzen ez badu, era honetara jarraitzen du:

## GORAKO ERREKURTSOA

Eusko Jaurlaritzako Trafiko zuzendariari bidali behar diogu, isunaren jakinarazpena jaso eta hilabete baino lehen. Halere, nahiz eta errekurtsoa jarri, isuna ordaindu egin behar dugu, eta errekurtsoa gure alde erabakitzen bada, orduan itzuliko zaigu.

## ERREKURTSOAREN EBAZPENA

Ebazpen honek ematen dio administrazio-prozedurari amaiera. Oraindik ere, aurrera jo nahi bagenu, erabakia gure aurkakoa delako, epailetara jo beharko genuke. Bestela esanda: auzitara eraman beharko genuke administrazioa.

Hurrengo erroetan, alegazio-idazkiaren eredu bat eskainiko dugu, mesedegarri izango delakoan. Hala eta guztiz ere, esan dezagun eredu honi jarraitzea ez dela nahitaezkoa, legearen

aldetik herritarrak askatasuna baitu idazki-egitura aukeratzeko. Hori bai, beti ere honako eduki hauek jarri behar dira gutxienez:

1. Alegazio-egilearen datuak.
2. Zer gertatu den.
3. Zer eskatzen den.
4. Sinadura.

Hartzailea: Gipuzkoako Trafiko Lurralde Bulegoa  
Gipuzkoako Trafiko Lurralde arduraduna

## ALEGAZIO-IDAZKIA

### ALEGAZIO-EGILEAREN DATUAK

Izen-abizenak: Andoni Barrenetxea Robles  
Nortasun-agiria: 72 416 447 G  
Helbidea: Urbietta 7, 6. F

### ZEIN ZIGOR-ESPEDIENTEREN AURKA

Bere garaian zigor-espediente honen berri izan nuen:

#### Zigor-espedientearen ezaugarriak

Zenbakia: 619602  
Hautsi den araua: 117.1 artikulua (RD 13/1992-17-1)

Badut alegaziorik eta froga-agiririk zigor-espediente horren aurka jotzeko, hain zuzen ere ondoren adierazten ditudanak.

### ALEGAZIOAK

**Lehena:** Gerrikoa jantzi gabe gidatu izana da salatzen zaidan arau haustea.

**Bigarrena:** Bizkarrean lesio bat dudalako ez dut janzten gerrikorik.

### FROGA-AGIRIAK

Sendagilearen txostena, bizkarreko lesioa zein den adierazirik.

### ESKARIA

Horrenbestez, alegazio-idazki hau aurkezten dut, agiri honetan azaldu-takoa onartzeko, eta, horren ondorioz, adierazi zaidan isuna ez jartzeko.

Urnieta, 2003ko otsailaren 1a

Izenpea

Izen-abizenak

**Jexux Eizagirre**  
**HAEko Administrazio**  
**Hizkeraren Atala**



### Mundua online

**www.euskaraz.net**

Donostiako Euskararen Udal Patronatuak egindako webgunea da euskaraz.net. Euskarari eta Donostiari buruzko informazio eta zerbitzu ugari aurkituko duzu bertan: *Auzoka* eta *Mugi!* aldizkariak, Donostiako hainbat idazleren argitalpenak, hiztegiak, Euskararen Udal Patronatuaren zerbitzu eta jardura guztiak eta **Donostia.Gaur** buletin elektronikoa. Buletin honek goizero komunikabideek Donostiari buruz argitaratu dituzten albisteak eskaintzen ditu dohainik, posta elektronikoa harpidetzeko aukera emanez gainera.

Asko dira guneak jasotzen dituen zerbitzuak, besteak beste, euskara ikasten ari direnentzako dirulaguntzak, errotuluak euskaratzeko laguntzak, udaleku irekiak, ikastetxeentzako eskaintzak...

Donostiako toponimia osoa ere webgune honetan aurkituko duzu, bertan jasotzen baitira Donostiako kale eta leku izen guztiak.

**Luis Elizondo**  
[luis-elizondo@ivap.es](mailto:luis-elizondo@ivap.es)

### Aisialdiko jarduerak euskaraz kudeatzeko programa

Programa berri bat dugu eskolaz kanpoko ekintzak kudeatzeko: *Aixe Aisialdia*. Programa hau *Sortzen-Ikasbatuaz* taldeak sortu du, eta helburu nagusia aisialdiko jardueretan euskararen kalitatea hobetzea da; honela, jolasak, eskulana, kirola, antzerkia, margoketa, dantza, informatika eta bestelako jardueretan euskara lantzeko aukera paregabea eskaintzen dute.

### Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako egitasmoa, eredu

Eusko Jaurlaritzak urtarrilean aurkeztu zuen Bruselan Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko landa inguruneetan Internet zabaltzeko proiektua. Eusko Jaurlaritzak diseinatu-tako proiektu hau Europako Batasunak aukeratu zuen otsailan, Europako gainerako beste proiektuen artean. Hautatzeaz gain, eredu gisa hartzea erabaki zuen, hain zuzen ere landa inguruneetan informazio eta komunikazio teknologia berriak zabaltzeko. Nekazaritza eta Arrantza Saila da proiektu honen ardura hartu duena.

### Euzko-gogoa sarean

Gerra ondoren euskara hutsez argitaratu zen lehen aldizkaria, *Euzko-gogoa*, sarean kontsultatu daiteke, *Susa* argitaletxeak egindako ahaleginari esker eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatzen duen *Ibiñagabeitia* proiektuaren baitan. *Euzko-Gogoa* 1949. urteko abenduaren 26an Guatemalako Postan erregistratu zuen Iokin Zaitegik, aldizkariaren zuzendariak; orduantxe inprimatu zen lehen alea eta 1950ean kaleratu. Aldizkari hau bereziki literaturaz arduratu zen, baina bestelako arloak ere hartzen zituen, hala nola: artea, musika, filosofia, historia, linguistika... itzulpen-lanak ere argitaratu ziren. Guztira, berrogeita lau ale dira, eta testu osoak eta faksimileak kontsultatu daitezke. Hori guztia, helbide honetan:

[www.armiarma.com/andima/eugo](http://www.armiarma.com/andima/eugo)

### Izenpe, ziurtapen elektronikoko erakundea

Euskal erakundeen artean (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiak, eta Eusko Jaurlaritzak), *Izenpe* ziurtapen elektronikoko erakundea, baltzu anonimoa, sortu dute; hau da, identifikazio elektronikoko proiektua egi bihurtu da. *Izenpe*-ren sorrera oso urrats garrantzitsua da administrazioaren eta herritarren arteko harreman telematikoetarako; izan ere, sistema honi esker Internet bidezko tramitazioak berme osoz egin ahal izango dira. Azken batean, Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek lortu nahi dutena euskal gizartea aro digital berrirako egokitzea da, kultura aldaketa erraztuz eta teknologia berriak pertsona guztien zerbitzura jarritz. Informazio gehiago webgune honetan aurkituko duzu: [www.izenpe.com](http://www.izenpe.com)

### SEI elkarteak SL posta zerrenda berria sortu du

Soziolinguistika inguruan aritzeko posta zerrenda berria dugu *SEI* elkarteak sortutakoa. Posta zerrenda horretan soziolinguistika arloan interesa duten guztiek euren iritzia, datuak eta hausnarketak elkartrukatu ahal izango dituzte. Nahi izanez gero, bidali zuen mezuak helbide honetara: [slposta@sortu.org](mailto:slposta@sortu.org)

Beste alde batetik, elkarte honek *Seiberri* izeneko orri elektronikoa sortu du. *Seiberri* bi hilabetez behin jaso daitezke norberaren helbide elektronikoa eta, bertan, honako informazio hau emango da: argitalpen, ikerketa, ekimen edo dena delakoaren erreferentzia, beronen azalpen laburra, eta gaiaren inguruan informazio gehiago lortzeko web-orri edo harremanetarako helbide elektronikoa. Argibideetarako idatzi helbide honetara: [pablo@sortu.org](mailto:pablo@sortu.org)



# Erietxeetako gurutzeak

**G**ogoratzen dut behin, artean ume bat besterik ez nintzela, aitak ospitalera eraman ninduela. Izeko Luisak eskaileretatik behera jausi eta aldaka apurtu zuen, eta bisita egitera joan ginen aita eta biok. Erietxeeko giro itogarriak, hango beroak eta botika usainak urduri jartzen ninduen, eta aitak ohikoak zituen istorio horietako bat kontatu zidan, ni lasaitzearren: “Ikusten duzu teiltuaren gainean dagoen gurutzea? Ospital guztietan dago bat. Horrela, gerra egongo balitz eta bonbardatzera etorriko balira, hegazkinetakoek gurutzea ikusi eta zerutik jakingo lukete hau ospital bat dela, eta ez lukete bonbarrik botako”. Nik dena sinestu nuen, jakina, aitaren istorio guztiak sinesten nituen bezalaxe. Gerora jakin ahal izan dut pasadizo horietako asko eta asko gezurrezkoak zirela, aitak ni liluratzeko helburuz asmatutakoak. Beste hainbat istorioren inguruan, ordea, zalantza handiak ditut: aitak, adar-jotzaile aparta izaki, serio-serio kontatzen zituen benetako pasadizoak zein asmazio hutsak; eta aspaldi, oso aspaldi, nik hogeitau urte bete baino lehenago hil zenez, ezin berari galdetu, eta zalantza horiek betiko geratuko zaizkit, argitu ezinik.

Erietxeetako gurutzeen auzi hori kontatu nizun behin, gogoratzen? Hori, eta beste hainbat istorio, eguneroko beharra eten eta bulegotik beheko kafetegira jaisten ginenean, hamaiketako kafesnea hartzera. Zeuk ere pasadizo ugari kontatu dizkidazu. Bat bereziki ondo gogoan dut. Zeu ere ume bat besterik ez zinela, ama hil zitzaizun, eta osaba-izekoekin bizitzen jarri zinen. Izeko Maria zeu kontsolatzen saiatzen zen behin eta berriro, eta etengabe esaten zizun ez arduratzeko, ama zeruan zegoen-eta. Zeuk, jakina, dena sinetsi. Baina behin, osabak eskolara autoz eraman zintuen batean, hilerriaren parean igaro zineten, eta osabak zera esan zizun: “Begira, han dago zure ama”. Orduan, hori entzunda, horma gris eta zikin horien atzean ostentzen zen alorrak zerua behar zuela pentsatu zenuen, eta, hil ostean, hara joatea ez litzaizukeela batere gustatuko erabaki zenuen. Xaloa izatea zer den.


Hamaika istorio kontatu dizkiogu elkarri, goizero, kafetegian, zigarroak iziotu eta kafesneak hoztu arte itxaroten genuen bitartean. Hamaika pasadizo garratz edo gozo, triste edo barregarri. Eta horixe genuen eguneroko monotoniaren kontrako aterpe bakar. Horrelaxe beratzen genuen lanak sortzen zigun asperdura eta ezinegona: kafesne baten inguruan istorioak elkarri kontatuz.

Ni ez naiz inoiz izan jende artean ibili zale. Zeu ere zakur bakartiaren gisa ibiltzen zinen bulegoan, eta horren kontura esamesa eta barre ugari ibili ditugu zure lankideok noiz edo noiz. Ez esan horren jakitun ez zinela: trufa eta zantzoen oihartzunak ailegatuko zitzaizkizun zure gela ilun horretara.

Eta ez da harritzekoa: beti bakarrik, beti isilik, beti uzkur ibiltzen zinen. Markos atezainak *Anguxtiar* gaitzizena jarri zizunean ederto asmatu zuen, asmatu zuenez. Eta gu biok, goizero kafesnea elkarrekin hartzen genuelako, adiskideak ginela esatea larregi esatea dela uste dut, baina aitortu behar dut zu estimatzera iritsi nintzela. Ez da meritu handia. Azken buruan, zure istorioak kontatzen zenizkidan istoriook nori kontatu ez zeneukalako, besterik gabe. Nire moduan.

Zure izena bozgorailuetatik entzun dudanean altxatu eta pasabideetan barrena abiatu naiz. Fluoreszenteen argi itsugarria zuriz margotutako hormetan islaturik ikusi dut, kontsultaren atea bilatu artean. Medikua harritu samar geratu da zu ikustera ez zaitzula seniderik etorri jakin duenean, eta, besterik ezean, niri azaldu dit azaldu beharrekoa. Antza denez, ezarri dizuten terapiak ez du oraingoz emaitzaririk izan. Esperantzarako zirrikitu gutxi gelditzen da. Orain, itxarotea dagokigu. Medikiak galdetu dit ea zainketa intentsiboetako unitatera pasako naizen zu ikustera. Ezetz esan diot.

Arrapaladan atera naiz ospitaletik, oinazearen biltegi erraldoi horretatik. Erietxeeko giro itogarriak, hango beroak eta botika usainak urduri jartzen naute. Kanpoan euria ari zuen, eta haize erauntsiek gupida gabe kolpatzen zituzten aterpe bila batetik bestera ibiltzen zirenak. Nik beldurra sentitu dut, beldur ikaragarria, hezur-mamietarainoko izu laborria. Zugatik; eta, batez ere, nigatik. Zuk beti jakin duzu kanposantuko hormen artekoa dela zeru bakarra; nik, aldiz, oraintxe ikasi dut erietxeetako gurutzeek ez gaituztela salbatuko, eta hegazkinetatik jaurtiriko lehergailuak berdin-berdin eroriko direla gure buru babesgabeen gainera.



**Gotzon Hermosilla**  
Idazlea





## Jon SARASUA:

**“Bertsolari izatea maite izan dut, eta maite dut, baina ez dut behar”**

Aretxabaletan 1966an sortua. Informazio zientzietan doktore, gizarte erakundeetan partaide, *Euskaldunon Egunkaria*-n eta hainbat aldizkaritan kolaboratzaile, musikagintzan ibilia... Ibilbide benetan oparoa Jon Sarasuarena, baina, zalantzarik gabe, guztion artean ezagunen bertsolaritzan eta bertsogintzan egindako lan eskergagatik. Euskal Herriko plazetan bertsotan, hitzak zorrozten eta melodiak abesten ikusi genuen urte askotan; baina orain dela hiru urte, oholtzatik aldendu eta beste eginkizun batzuei hartu zien tarte. Aldaketak, ostera, ez zuen bertsolaritzatik urrundu, eta gaur egun, itzalean bada ere, ez dio kultur adierazpide horri utzi: *Bertsolaritzaren Kultur Proiektua*-n dihardu.

### Zer dela-eta plazetatik urrundu izana?

Orain dela hiru urte, 19 urte bete nituen bertsogintzan, plazetan: jada tarte dezentea. Bolada berean, ebakuntza egin zidaten eta ahotsa urtebeterako galdu nuen. Beraz, batetik, hala-beharrez, eta, bestetik, oholtzan komunikazio-une onean banengoen ere, trotea aldatzeko gogoz nengibilen, eta denbora beste eginkizun batzuetan jarduteko hartu nuen.

### Gizarte erakundeetan, bertsolaritzan, irakaskuntzan, ikerkuntzan, musikagintzan, idazle lanetan... Alor askotan aritua zara. Kutunik bai?

Nire joera alor askotara irekita egotea izan da, kezkek eramaten nauten tokietara bideratzea. Orain, esate baterako, gai sozio-ekonomikoetan nabil murgilduta, beste etapa bat da. Etengabe ikuspegi panoramikoetik gauza zehatzetara joan-etorrian ibiltzeak tiratzen dit. Horrek ere baditu bere arazoak baina.

### Bertsolaritzak egin zintuen plazetako kutun... Ez al duzu plaza-minik?


Uste baino gutxiago. Beti pentsatu izan dut bertsogintzak dependentzia sortzen ote duen, baina plazak utzi nituela hiru urte igaro direnean, ezetz iruditu zait. Tentazioa edo beharra ez da horrenbesteko izan. Uste baino gusturago nago. Bertsolari izatea maite izan dut, eta maite dut, baina ez dut

behar. Haatik, horrek ez du esan nahi inoiz itzuliko ez naizenik plazetara. Ez dakit itzuliko ote naizen. Unea iristen bada, erabakiko dut plazaratu edo, non eta nola. Memento, ondo nago itzalean.

### Dena den, plazak utzi izanak ez du esan nahi bertsogintza erabat baztertu duzunik; bertsolaritzaren kultur proiektuan hartzen duzu parte. Zertan datza proiektu hori?

Guk, bertsolaritzan gabiltzanok, bi esparru bereizten ditugu mundu horretan: batetik, bertsogintza edo plazetako jarduna; eta, bestetik, bertsolaritzaren kultur proiektua, hots, *Bertsozale Elkarte*a-ren inguruan gorpuzten den proiektu kulturala. Ni proiektu horretan partaide naiz, oholtzetan agertu gabe ere. Proiektuak hiru ardatz ditu oinarri: bata, hedapena. Bestea, transmisioa, bertsolaritza hurrengo belaunaldietara geroratzea alegia; horretan sartzeko dira bertso-eskolak, hezkuntza arautuko bertsolaritza

eta beste mila gauza. Hirugarrena bilketa-ikerketa da, hain zuzen ere gaur egun egiten ari den lana jaso, bildu eta bertsolaritza ikerbideetan sartzeko. Hiru ardatz horiek lurraldetasunaren irizpidea dute lokarri, euskarak ukitzen dituen lurralde guztietako jendeak parte hartzen duela ziurtatuz. Gure nazioartekotasuna ere gero eta gehiago lantzen ari gara.



## **Une egokia al da proiektu hori gauzatzeko? Laurogeita hamargarren hamarkadan bezain mami-tsu al dago egun bertsolaritza?**

Gaur egun, bertsolaritza oso une interesgarrian da. Egia da laurogeita hamargarren hamarkadaren erdialdean bertsolaritzan *boom* handia izan zela, baina jakina da berpizte horiek ez dutela betiko irauten. Hala ere, gaur egun, 1.300 bertso-saio egiten dira urtean eta *boom* garai hartan ere ez ziren gehiago egiten. Arrakastatsuagoak bai, baina hura ez zen sana eta eutsigarria. Orduan ere hala esaten genuen. Eutsi egiten diogu saio kopuruari, eta beste alderdi batzuei dagokienez (bertso-eskolak, bertsolarien beraien kalitatea, gazteen interesa...), egoera ona da. Bertsolaritzaren errealitatea, orain, aparra jaitsita, polita da eta aberatsa. Plazetatik aparte, bertsolaritzaren inguruko mugimenduan ere jende asko dabil, dela profesional moduan, dela militante gisa... Bertsolaritzaren sarea koxkorra da, baina zabala; ia Euskal Herri osoan hedatzen da eta proiektu kultural propioa du.

**“Euskalgintzak estrategia edo ikuspegi beregain batean oinarritu beharko luke”**

### **Badirudi azkenaldi honetan euskal kultur proiektuei ekaitzak ez diela bare egoten uzten...**

Beno, garai batean bertsolaritzaren mugimenduari ere norbaitek etiketaren bat edo beste jarri zion, baina mugimendurik izan bada berean askotariko joerak hartu dituen, horietako bat bertsolaritza izan da, eta hasiera-hasieratik erakutsi dugu zabalik egote hori. Uste dut, zentzu horretan, denekin izan gabela zabal bezain mesfidati, elkarlanerako prest baina aldi berean gogor: agintariek, Kontseiluarekin... Bertsolaritzan ibilbide beregaina egin dugu, irizpide propioetan oinarritua, eta, alde horretatik, ez daukagu heldulekurik ezta gaizto dabilenarentzat ere.

### **Baina gaizto dabilenak beti aurkitzen du heldulekurik txikiena ere...**

Hori ere egia da. Dena den, ez dut oso gogoko euskalgintza edo kultur gintzaren aurkako “eraso” horiei erantzuteko dinamikan sartzea. Uste dut eraso-erantzun dinamika horrek euskalgintzaren iparra lausotzen duela. Salaketak, erantzunak, inplikazio eskariak egin izan dira eta egiten dira, baina uste dut egoeraren inguruan hausnartzeko eta birpentsatzeko unea aspaldi iritsi zitzaiola, eta ez soilik *Euskaldunon Egunkaria* itxi diguten une honetan. Zer egin dugu gaizki edo ongi eta zer egin beharra daukagu aurrerantzean? Galdera horrek nauka kezkatuago.

Euskalgintzak estrategia edo ikuspegi beregain batean oinarritu beharko luke, martxan dauden bi estrategia abertzaleak baino azpiragoko ikuspegi batekin, botere autonomikoaren eta kontrabotere politiko-militarraren estrategiei lotu gabe. Baina oraingoz, estrategia horiek oso presente daude; etorkizunik ez duten arren indar ikaragarria dute eta dena zipriztintzen dute. Euskalgintzaren estrategiak, nire ustetan, horietatik landa beharko luke, esparru propioan. Bestelako bide sendo baten ernamuina sortzeko elementuak ditu euskalgintzak. Oinarri edo zimentu batzuk jadanik iradokita daude, hizkuntza ekologiaren formulazioetan daude, eta energia dextente dago gizarte-sarean, baina, errealitatean, badirudi ez dela mamitzen ari.

**Maria Lizardi**  
**Kazetaria**



# Bururik ez daukanak...

# itzulpen memoria!

Ordenadoreak bizitza nahastu baino ez duela egiten uste baduzu edo informatika halako sorginkeria ulertezin huts moduko bat besterik ez dela etsita bazaude, usa itzazu, behingoz, aurreiritziak! Laga itzazu alde batera okerreko irudipen horiek! Ordenadorea gure oroimenaren bene-benetako laguntzailea bihurtu da! Sinesgogor? Buruenik, informatikariek eta itzultzaileek elkaturik bezain elkar hartuta eman digute gure buru arinek txoko galduren batean ahaztuta utzitakoa gogora erakartzeko tresna ezin ordainduzkoa!

Azken urteotan iraultza moduko bat gertatu da itzulpengintzak eta informatikak bat egiten duten eremu zabal bezain ezezagunean. Eta zelan deritzote erreboluzio horri? Itzulpen memoriak kudeatzeko programak! Zer ote diren itzulpen memoria direlako horiek? Itxaron, ez utzi idazkitxo hau alde batera, itzultzaile ez badiharduzu ere zure intereseko gertatuko direlako itzulpen memoriok!

Itzulpen memoriaren oinarria ezin errazagoa da: itzulgaiak eta itzulpenak datu base moduko batean gordetzea, itzuli ahala erraz eta arin kontsultatzeko eta berreskuratzeko moduan. Kontua da itzultzaileak inoiz itzultitakoa berriz ere eman behar ez izatea. Eta, hori dela bitarte hainbesteko hautsa zergatik harrotu? itaunduko duzu, bide zuzenean. Ez ote dituzte testuak erraz askoan bilatzen programa arruntek? Bai... baina ez!

Ordenadoreak asmatu zituztenetik, pelikulek eta literaturak liluratuta, denok jotzen genuen (a zeinen uste ustela!) berehalakoan itzultzaile automatikoak egongo zirela merkatuan. Ez da, barren, halakorik gertatu, ezta hurrik eman ere! Itzulpen automatikorik, izan, bada, baina mota horretako itzulpenik onenak emaitza onargarriak emango ditu eremuak oso mugatu eta definituak badira: eguraldi iragarpena, hegazkintza. Osterantzean, ondorioak barregarriak izaten dira. Ikusi besterik ez dago interneten zelakoak agertzen diren doako itzulpenak eskaintzen dituzten guneeetan edo tresna batzuek dakartzaten jarrai(ez)bide liburuxka ulertezinak! Oraingoz, itzulpen memoriak ditugu baliabiderik egokienak.

Ele biko erakundeetan itzulpen memoriak kudeatzeko aplikazio informatikoak ezarri doaz apurka. Bestalde, doako memoriak eskaintzen hasi dira erakunde publiko eta pribatu batzuek. Eta zertan lagun diezaiokete horrelakoek itzultzaile ez denari? Memoriok hizkuntza normalizatzeko tresna eraginkorrak ez ezik, estandarizazioa eta batasuna bermatzeko lanabesak ere dira.

Aplikazio horietako batzuk programa autonomoak edo independenteak dira. Bestetarik, ordea, beste testu tratamenduari eransten zaizkio. Oinarrian, hiru osagai nagusi edukitzen dituzte: itzulpen zaharrak memoria bihurtzeko tresnak, itzuli ahala memoriako edukiak erabiltzeko lanabesak eta, hirugarrenik, glosategiak, hiztegiak eta memoriak gobernatzeko bestelako lagungarrien bilduma.



Eta onurak? Idazten duzunean eskura izatea esaldi hiztegi zabal halako bat, hainbat itzultzailek emandako ordainek osatua. Kontsulta egin gura baduzu, marka ezazu esaldia, berba multzoa edo hitz isolatua, zanpatu bilatzeko agindua eta, berehalako, hara hor memorian diren ordain guztiak. Airez aire, amen batean!

Eremu horretan trebatzen hasteko gogorik izanez gero, doako aplikazio bat topa dezakezu helbide hau erabilita: <http://www.wordfast.org/>. Beste hau <http://www.wordfast.org/site/manual.html> baliatuta, eskuliburua eskuratuko duzu. Eta, azkenik, honako hau <http://www.ivap.com/eusk/izo/itzulpen-memoriak.htm> eta hau <http://www.eizie.org/euskara/tresnak/memoriak.htm> usatuta, doako memoriak hartuko dituzu. Debaldeko aplikazio erabiltzen hastea erraz-erraza da, eskuliburuan argiro azaltzen duelako zelan eman aurreneko urratsak. Osterantzean, EIZIE elkarteak argitaratzen duen *Senez* aldizkariaren 25. alean programa erabiltzeko jarraibideak aurkituko dituzu, euskaraz. Euskarri elektronikoan ere: <http://www.eizie.org/euskara/argital/senez/25/wordfast.htm>.

Itzulpen memoriak, halere, ez dira "orosendagaiak". Horrelakoei esker itzulpen automatiko aldrebesak barik, itzulpengintza eta idazkuntza sistematizatzeko bidea eta kontsulta sistema arina lortuko ditugu. Gainerako erabilera estandarretan horrelakorik ez baliatzea zabarkeria hutsa litzateke. Norberarentzako kalte ere bai, lana errazago eta hobeto egiten laguntzen dutelako. Eta bestelako abantamendurik ere badute: hizkuntza lantzeko, ikasteko eta sakontzeko tresna ere izatea. Ekin, ez zara damuz egongo eta!

**Karlos del Olmo**

**Itzultzailea**

# Hobe berandu sekula ez baino

1936-1939ko gerrako errepresaliatuen duintasunaren alde

**U**rrun bezain ezezaguna dugu Priaranza del Bierzo, Leon aldeko herrixka. Era berean, urrun bezain ahaztuta zegoen gizartearentzat 1936-1939ko gerraren ondorioz suertaturiko sarraskien oihartzuna. Baina azken udan, herri horretan egindako indusketa historiko-arkeologikoek berpiztu dizkigute gerra haren zauri itxigabeak. Euskal Herrian bertan, antzeko aurkikuntza batzuk direla medio, biktimen familien artean bakarrik piztuta zeuden errautsek berriro su hartu dute oroimen kolektiboan. Burura etorri zaizkigu hirurteko hartako errepresiorik ankerrenaren seinaleak, leku askotan lur azpian oraindik dirautenak.

Egia da gerra horretaz milaka eta milaka orri idatzi dituztela, ehunka biltzar edo jardunaldi egin direla, baina jakin-minaren gosea ez da oraindik asebate. Eta ez da jakin-min sasi-intelektuala edo mendeku kutsua dakarrena; hori baino gehiago da: arbaso batzuen duintasuna errekuperatzeko oinarritzko saioa. Izan ere, harrigarria suerta daitekeen arren, gerra horren ondorioz hildako mordo batek oraindik hilobi komun ezezagunetan lurperaturik jarraitzeaz gain, beste asko ahanzturaren poderioz desagertu dira historiatic.

1936-1939ko gatazka amaitu zenetik sei hamarkada luze igaro dira, eta orduan ireki ziren zauriei samina darie oraindik. Francoren ondorengo trantsizio politikoa hasi zenean hantzenen hasi ziren gerra garaiko hildakoak berreskuratzen. Aitzurraz eta palaz lagundurik, ahozko tradizioak eta testigantzek aipatzen zituzten lur eremuetan edo bide bazterretan fusilatuen senideek eta lagunak eraildakoen hezurak bildu zituzten, lurperatze egoki eta duina emateko asmotan. Izen eta abizen askok heriotza-ziurtagiria eskuratu zuten azkenik.

Bide batez, artxibategietan dokumentazio historikoaren gainean zeuden mota guztietako oztupoak saihestuz, makina bat ikerketa gauzatu ziren. Horren ondorioz, tokian tokiko ikerketa sendoek 1936-1939ko hondamendiari buruzko ikuspegi berri bat azaleratu zuten, historiografia frankistak ordu arte izandako ia-ia erabateko monopolioari aurre eginez. Orduz geroztik, nahiz eta hainbat lurraldetan ikerlanen kopurua apal samarra izan, nahiko frogantza ditugu gertatu zenaz jabetzeko.

Gerrak sortutako triskantza islaturik geratu da hainbat liburu, hitzaldi, telebistako emanaldi eta baita eleberrri eta literatur saioetan ere. Lau haizetara hedatu zen militar frankistek hasieratik bertatik altxamenduari eman zioten jite ankerra eta bortitza. Jakin genuen militar faxisten estatu kolpearekin



**“Francoren diktadura  
amaitu zenetik 30 urte  
igaro dira eta oinarritzko  
demokrazia dugu oraindik  
ere ikasgai”**

batera, erailketek izugarritzko eragina izan zutela tokian tokiko garaipenak lortzeko, demokraten erresistentzia errotik deuseztatu baitzuten.

Errepublikaren aurkakoak nagusitu ziren eskualdeetan, Nafarroa eta Araba bezalako erretagoardietan esate baterako, izua lege bihurtu zen, altxamendua gertatu baino lehenago militarrek prestatu zituzten “barne araei” jarraituz. Armadak eta berarekin bat eginik aritu ziren karlistek eta falangistek lehen unetik kontrolpean izan zituzten herrietan egundoko sarraskiak egin zituzten. Izan ere, inolako bermerik edo jardun judizialarik gabe, heriotza nagusitu zen frankisten esku zeuden erretagoardiako lurraldeetan. Melillatik Iruñeraino, Sevillatik Coruñaraino hilketa mordo bat burutu zuten Jaungoikoaren izenean borrokatzen zutenek. Ez zuten inolako errukirik izan harrapatutako biktimekin; batzuetan hilerrietako hilobi komunetara botata, beste askotan edozein eremu edo bide bazterretan hilik eta lurperatuta, hantxe utzi zituzten hildakoen gorpuak. 1936ko uda eta udazkena bitartean gertatutako hilketa masibo horiek moteldu izan arren, ez ziren sekula gelditu.

Beranduago, II. mundu gerratearen bukaera antzematen hasi zen egunotan, epaiketak eta heriotza zigorrak eguneroko errealitate tamalgarri bilakatu ziren. Gerra-kontseiluak eta epaiketak gehiengotan heriotzara zeramaten bide sasi-judiziala bihurtu ziren, eta argi eta garbi frogatu zuten ankerkeria ez zela lehen egunetako mozkorraldi kriminalaren emaitza garratza, Francoren diktaduraren ezaugarri nabarmenetakoa baizik.

Hori horrela izanik, gerra zibila amaituta ez zen inondik ere etorri zanpatuekiko errukia. “Garaipen eguna” ezarrita, gerraren galtzailak etorkizun tamalgarri bezain beltza izan zuten aurrez aurre: heriotza, espetxea edo erbetea.


Gerra amaitu eta hurrengo hamar urteetan, 50.000tik gorako heriotza-zigor agindu zituzten epaitegi eta borrero frankistek. Propio aldarrikaturiko lege batzuen bitartez –*Ley de responsabi-*

*lidades políticas* edo *Ley de represión de la masonería y del comunismo*– milaka gizon eta emakume zigortu zituzten. Gaur

egun zenbaki zehatzak ematea zaila den arren, orduko lekukoek agerian uzten dute Espainia osoa kartzela handi bat bilakatu zela; komentuak, ikastetxeak, gotorlekuak... presondegi bihurtu ziren, Francoren gati-  
buak hesien eta burdinen artean gordetzeko. Kantabriako Santoñan, esate baterako, 5.600 preso egon ziren garai batean.

Horietaz gain, 1936-1937ko urteetan hasitako erbesteratzeek antzera jarraitu zuten 1939ko neguan; Kataluniatik eta Mediterraneo hainbat portutatik jende ugari alde egin behar izan zuen. Milioi erdi bat errefuxiatu, nola edo hala,

Pyreneoz bestaldera joan ziren, eta horietatik asko eta asko, behin betiko. Itzuli zirenek “barne erbetea” deitutakoarekin egin zuten topo mugaz honantz. Garbi zegoen zein zen galtzai-



## Miren Mikeli Agirre Aristizabal eta

## Mikeli Miren Agirre Aristizabal:

**“Sarraski haiek benetan gertatu zirela eta hildakoak egon zirela jendaurrean aitortu dadin nahi dugu”**

Miren Mikeli eta Mikeli Miren. Mikeli, aitaren, Fortunato Agirrereren, ohoretan, Migel Sainduaren miresle baitzen. Haatik, Agirrek ez zuen inoiz alaba bikien izenak jakiterik izan, ezta jaioberrien aurpegiak ikusterik ere, sortu baino bi hilabete lehenago, 1936ko irailaren 29an, justu San Migel egunean, hil baitzuten, tiroka. Errepublika garaian fusilatutako beste hainbat eta hainbat herritarrekin gertatu bezala, Lizarrako alkatearen hilketak, ezkutuan eta isilpeka egina, argitu gabeko galdera asko utzi zituen airean. Harrezkero denbora luzea igaro da, baina bi emakume nekazekin hauek etenik gabe jardun dute atez ate galderak eta susmoak argitzeko eta, bidean, ezjakintasun egoera berean dauden beste jende askorekin egin dute topo. Indarrak batu, elkartu eta *Fusilatu eta Errepresaliatuen Senitartekoen Elkartea* sortu dute Iruñean.

### Zein da elkartearen helburua?

Elkartea osatzen dugunok gure senitartekoen, fusilatuen, hilketak aitortzea nahi dugu. Fusilatu eta errepresaliatuak duin egin nahi ditugu, ez dugu besterik eskatzen; hots, sarraski haiek benetan gertatu zirela eta hildakoak egon zirela jendaurrean aitortu dadin nahi dugu. Gainera, elkarteari esker, fusilatuen senideok informazio ugari eta oso interesgarria biltzen ari gara zoritxarreko gertaera haien inguruan. Kontuan izan Agirretarroi, behintzat, garai hartan aitaren hilketaren berri eman zigutela, baina, gaur egun, oraindik jende ugari dago haien senitartekoekin zehatz-mehatz zer jazo zen jakin gabe. Askok eta askok ez dute senideen gorpuak ehortzerik izan, ez baitakite non dauden. Poliki-poliki susmo eta zalantza asko argitzen ari dira.

### Nola izan zenuten aitaren fusilamenduaren berri?

Beno, egia esan, guri ez ziguten fusilamenduaren berri eman, oraindik ez baikinen sortuak ere. Aita hil eta bi hilabetera jaio ginen. Pentsa, ama gu sabelean, gure hiru anai-arrebak txiki-txikiak eta, bat-batean, senarra betiko eramana, gupidarik gabe eta ezkutuan tirokatua. Artzain bati esker jakin zuen amak hilketaren berri. Dirudenez, aita Taxoaren hil zuten, gau aldera, hilerri ondoan. Taxoareko biztanleek, beren etxeetan, izan omen zuten tiroen oihartzunik, baina, jakina, inor ez zen ausartu kaleratzera. Ondorioen beldur ziren. Hurrengo egunean, gorpua aurkitu zutenen artean, ardiak Taxoarera bazkatzera eramaten zituen

leen patua: lantokietako depurazioak, isunak... errekonziliazio ezak betiko zanpatu zituen.

Francoren diktadurak, bere historia luzean, harrokeria handiz eutsi zion bere oinarri eta jatorri faxistari. Irakaskuntzan, kale izendegietan, festetan, ospakizun zibil eta militarretan... irabazle eta galtzaileen arteko aldeak nabarmendu ziren. Alde batean "Caídos por Dios y por la Patria" direlakoak goraiatzen zituzten bitartean, Estatu osoan zehar halako lurperatze eta desagertze basatia izan zuten milaka eta milaka biktimei ahanzturaren lege gordinena ezarri zitzaion. 1938ko azaroaz geroztik, elizetako hormetan "iraultza marxista"-ren biktimen zerrendak zintzelatu zituzten eta beraien aldeko oroigarri itzelak altxatu. Frankistek eragindako hildako anitzek, ostera, ez zuten eskubiderik izan ezta erregistroan bere heriotzaren aipua izateko ere.

Demokraziarako trantsizioa iritsi zenean erakundeek ez zuten inolako ahaleginik egin gure hildakoak aurkitzen saiatzeko; tokian tokiko ekimenak, asko eta asko lagunek eta senitartekoez bultzatuta, izan dira hildako eta desagertutako horien hondarrak eta oroimena berreskuratzea lortu dutenak.

Baina, tamalez, ez guztionak. Eta, hain zuzen ere, horiek dira orain azaltzen ari direnak. Baso eta bide bazterretan dauden hil-



dako horiek beraien senideek aukeratzen duten lekuan duintasunez lurperatzea, triskantza horiek ezagutzera ematea eta orduko demokraten izen ona berreskuratzea horiexek ditugu gure helburuak. Francoren diktadura amaitu zenetik 30 urte igaro dira eta oinarritzko demokrazia dugu oraindik ere ikasgai. Hobe berandu sekula ez baino.

**Josu Chueca**

**EHUko irakaslea**

Lizarrako artzain bat zegoen eta hura ohartu zen hildakoa gure aita, Lizarrako alkate Fortunato Agirre, zela. Dena den, une hartan bertan ez zuen txintik ere esan. Ez zen ausartu. Baina hiru hilabete geroago, Lizarrara itzuli zenean, gure familiarengana jo eta zoritxararen berri eman zien.

### **Une latzak izango ziren Agirretarrentzat...**

Horixe! Ama alargundu, bost seme-alaba umezurtz utzi eta, hori gutxi balitz, familiaren enpresa konfiskatu. Biluzik utzi gintuzten. Eskerrak senideen laguntza jaso genuen, bestela... Eta ez zen hori bakarrik izan, ondorengo urteetako giro politikoak ez baitzuen egoera leundu, ezta gutxiago ere. Nazionalista baten seme, alaba edo hurbileko izate hutsak susmagarri bihurtzen zintuen. Herrian bertan, zenbait jende gaizki-esaka eta marmarka ibiltzen zen gure atzetik. Errepresioa izugarria zen. Pentsa noraino iristen zen, gure anaiari txistua jotzea galarazi zioten; auskalo, euskal instrumentua maltzurkeriaren ahots zelakoan-edo... Kontua da euskararekin, euskal kulturarekin, abertzaletasunarekin zerikusia zuen edozer baztertu nahi zutela.

### **Zuen aitarekin egin zuten moduan.**

Halaxe da. Aita kezka handiko gizona zen, beti omen zuen buruan proiekturen bat, zela liburutegi herrikoi bat eraikitzea, zela nekazarie laguntza eskaintzea... Ez zen geldirik egotekoa, beti zebilen herriarentzat aurrerapenak eta laguntzak bilatze lanetan. Euskal Estatutuaren garaian EAJko zinegotzi zen, Udalbatzako lehendakaria izan zen, Euskal Alkateen Asanbladako kide... Alkate zela, Iratxeko monasterioan mugimendu arraroak gertatzen ari zirela jakinarazi zioten; dirudienek, Mola jenerala omen zebilen altxamenduren bat prestatzen. Orduan, gure aita guardia agindu eta Errepublikako Gobernuaren mandatariari, Casares Quirogari, abisatu zion. Quirogasek lasai egoteko erantzun zion, Mola leial zitzaiola Errepublikari eta, horrenbestez, guardia altxatzeko.

**“Lortu dugu aitaren  
gorpuak bakean atsedean  
hartzea”**

Bizpahiru egunera, aita atxilotu, espetxera eramán eta, azkenean, hil egin zuten.

### **Handik urte batzuetara, hilotza familiaren panteoira eramatea lortu zenuten.**

Bai. Agiriak bete eta lortu genuen aitaren gorpuak behingoz zegokion tokian, bakean, atsedean hartzea. Tamalez, fusilatuen senide ugari ez dute zorte bera izan. Horieta askok ez dakite non hil zituzten, non diren gorpuak, ez dute ezta heriotza-agiririk ere. Elkartean, ahal den neurrian, gabezia horiek konpontzen saiatzen ari gara eta, zorionez, orain arte erantzuna oso ona izan da. Nafarroako familia asko elkartzen ari gara, eta alderdi politikoak ere, UPN izan ezik, laguntzeko prest agertu dira. *Solidaritatearen eta Elkarbizitzaren Mahai*-ko ordezkariak ere oso ongi hartu gaituzte. Orain ez asko, Nafarroako Parlamentuan izan ginen Fusilatu eta Errepresaliatuen Aldeko Mozioa aurkezten eta badirudi gauzak bide onean doazela.

**Estibalitz Ezkerra**

**Kazetaria**

# Nola diseinatu testu elebidunak

Artikulu hau *Galdezka* liburutik ateratako kapitulu baten laburpena da; badakizu, beraz, nora jo, oso-osorik irakurri nahi baduzu.

## Nola idatzi behar ditugu testu elebidunak: zutabeak, orrialdeka...?

Hasteko esan dezagun, gure ustez, idazki-motak baldintzatu egiten duela testu elebidunen diseinua. Hiru kasu nagusi ikusten ditugu guk:

1. Euskarazko eta erdarazko testuak orriaren alde batean agertzea.
2. Euskarazko eta erdarazko testuak orriaren alde banatan agertzea.
3. Euskarazko eta erdarazko testuak orri bat baino gehiagotan agertzea.

1. Lehen kasuari dagokionez, eta idazki-motak kontuan izanik, hiru aukera-edo:

- Inprimaki batzuetan datuak eskatzen dira bereziki (izen-abizenak, helbideak, telefonoak, etab.). Horrelakoetan, hobe dugu hizkuntza biak bata bestearen ondoan jartzea; izan ere, datuok behin bakarrik eman behar ditugu. Adibidez:

Izena / Nombre:  
Abizenak / Apellidos:

Idazkiak ohar laburrak baldin baditu (bandoa, iragarria, oharra), orrialdearen goiko aldean jar dezakegu testu bat, eta beheko aldean bestea.

- Idazkia orriaren alde batean sartzeko modukoa bada (ofizioa, gutuna, bilera-deia...), zutabeetara jotzen dugu askotan administrazioan.

2. Zutabeak gehiegi gustatzen ez bazaizkigu, aurreko dokumentu horiek –orri batean sartzan direnak, alegia– orriaren alde banatan jar ditzakegu, hau da, alde batean euskaraz, eta bestean erdaraz.

3. Euskarazko eta erdarazko testuek orri bat baino gehiago hartzen badute, bi eratara jokatzeko modua ikusten dugu; beti ere, idazkeraren luzera aintzat hartuta:

- Testuak orri gutxi hartzen baditu (dekretua, erabakia...), oraindik ere bi zutabeak egokiak izan daitezke.
- Testua luzeagoa bada (txostenak, aktak, liburuak...), egokiagoa da orrialde ezberdinak erabiltzea (ezkerreko orrian hizkuntza bat, eta eskuinean bestea; edo liburuaren aurrealdean bat, eta atzealdean, ipurdiz gora, bestea).

## Zer egin daiteke testu elebidunetan euskara nabarmentzeko?

Jakin ezazu –kolorearen erabilera alde batera utzita– hiru bide nagusi daudela idazki elebidunetan, hizkuntza horietako bat goratzeko:

1. Kokapena.
2. Tipografia.
3. Osagai komunak.


1. Kokapenari dagokionez, hiru egoera aztertuko ditugu: elkarren ondoan doazen hitzak, zutabeak eta orrialdeak.

- **Elkarren ondoan doazen hitzak.** Hizkuntza bat nabarmentzeko, aurrean edo gainean jarriko dugu beti. Ikusi nola goratzen dugun euskara ondorengo adibidean:


### Prestakuntza ikastaroetarako eskabide-orria Solicitud para cursos de formación

Izena Nombre	1. abizena 1º apellido	2. abizena 2º apellido	NAN DNI

- **Zutabeak.** Alor honetan egin diren ikerketen arabera, ezkerreko zutabea da nabarmentzen dena, begiek, beraz, horretara jotzen baitute zuzenean:



- **Orrialdeak.** Bi orrialde baldin baditugu parean –ezker-raldekoa (bikoitia), eta eskuinaldekoa (bakoitia)–, eskuintekoak omen du lehentasuna; horrexegatik izaten da garestiagoa iragarkiak eta publizitatea orrialde horretan jartzea, ezkeraldean baino.



## 2. Tipografiak ere badu eraginik.

Batetik, neurria erabil dezakegu: zenbat eta letra handiago, orduan eta garrantzi handiagoa hizkuntzarentzat:

ZIURTAGIRIA  
CERTIFICADO

Bestetik, letra-mota. Edozein letra hiru era hauetara ager daiteke, besteak beste: **lodia**, zuzena, *etzana*. Horien artean hierarkia bat eginez gero, lehena da nabarmenena; eta azkena, gaiztoena, irakurtzeko orduan.

ZIURTAGIRIA  
ZIURTAGIRIA  
ZIURTAGIRIA

Horiek horrela izan arren, kontu handiz ibili behar dugu tipografia aukeratzekoan. Letra **lodia**, neurritz erabilia, oso aproposa da zer edo zer azpimarratu edo indartzeko; neurririk gabe, berriz, nekatu egiten du, eta ez du testu luzeetarako balio. Antzera gertatzen da *etzanarekin*; letra normalaren aldean, etzanak askoz ere gehiago nekaratzen ditu irakurlearen begiak, eta gainera arazo askoren iturri da: esaterako, zer egin behar dugu etzanez idatzitako testu batean etzana erabili behar badugu liburu bat edo dena delakoa aipatzeko?

3. Osagai komunak aipatu ditugu lehen; baina zertaz ari gara? Bi zutabetan idatzitako testuetan (ofizioak eta gutunak, esaterako), berez hizkuntza bietan errepikatu beharko genituzkeen osagai batzuk dauzkagu, hala nola, hartzailearen datuak (kargua, saila, helbidea), igorlearenak, data... Bada, gure hizkuntza nabarmentzeko modu bat hauxe izan daiteke: horiek guztiak euskara hutsean agertzea.

Testuaren barruan berdin egin dezakegu bestelako osagaiekin; adibidez, toki-izenak (*Deba Garaia*, *Donostialdea*...), ehunekoen zeinuak (%65), eta abar euskaraz bakarrik eman.

**LABURBILDUZ**, testu elebidun batean euskara nabarmendu nahi badugu, hauxe egin behar da:

- Hitzak elkarren ondoan badatoz, jarri aurretik edo gaintik euskarazkoa, eta nabarmendu letra handiagoa edo lodia erabiliz, edota letra etzana erdararentzat utziz.
- Orri bakarraren alde banatan idatzi badugu (alde batean euskaraz, eta bestean erdaraz) kontuz ibili orria kartazalean sartzerakoan: kartazala irekitakoan euskarazkoak izan behar du irakurtzen den lehena. Triptikoak ere modu egokian tolestu eta aurkeztu.
- Testuak bi zutabetan ematen badira, utzi ezkerrekoa euskararentzat. Bi hizkuntzetan letra zuzena (normala) erabiltzea da egokiena; hala ere, erdara “apaldu” nahi izanez gero, idatzi zutabe hori etzanez. Honelako testuetan, beste probatxo bat egin dezakegu: testutik kanpoko osagai komunak (hartzailearen datuak, helbideak, igortzailearen zehaztasunak...) euskara hutsean eman.
- Batzuetan, euskara goratzeko beste bide bat osagai batzuk euskara hutsean ematea izan daiteke. Adibidez, kopuruak (%65), toki-izen batzuk (*Deba Garaia*) etab.
- Orrialdeka idazten badugu, gorde eskuinekoa euskararentzat.



# Elkarbizitzarako proposamen politikoaren gaineko ikuspegi akademikoa

Ibarretxe lehendakariak 2002ko irailaren 27an Eusko Legebiltzarraren aurrean aurkezturiko *Elkarbizitzarako Proposamen politiko berriak* hautsak harrotu ditu politikari eta analista ugariaren artean, eta ordudunik iritzi artikuluetan eta telebista zein irratiko eztabaida saioetan beren aburua plazaratzen dabilta.

Esparru politikoari dagokionez, Eusko Jaurlaritzan osatzen ez duten indar politikoek gaitzespen osoa azaldu diote testuari. Sarritan, baina, iritzi hauek Proposamena bera irakurri ere egin gabe jaulki dituzte, eta, kasurik gehienetan, hausnarketa akademikoek berezko behar lituzketen zorrotasun, sosegu, irizpide independentzia eta metodologiarik gabe gainera.

## HAUSNARKETA AKADEMIKOA EGITEKO BEHARRA

Ikuspegi juridikotik behatuta, Ibarretxeren Proposamena modu ugarian interpretatu da, Donostiako Miramar jauregian 2003ko otsailaren 4tik 7ra bitartean izandako *Lehendakariaren Proposamenari buruzko Jardunaldietan* ikusi zen bezala. Unibertsitateko kideek ikusten zuten ordura arte ez zela Ibarretxeren Proposamenaren inguruko azterketa juridiko pluridiziplinar serio eta objektiborik egin, eta bere norainokotasunean sakontzeko beharra zegoela. Horretarako, honako ikuspegi juridiko-politikotik abiatu ziren: *eskubide historikoak errespetatu, babestu eta eguneratzeari* dagokionez, 1978ko Konstituzioako Xedapen Gehigarritik; Gernikako Estatutuko Xedapen Gehigarriari (1979) eta Nafarroako Foru Hobekuntzan (1979) jasoa dagoen moduan. Eta baita Konstituzioak eskuduntzak bereganatzeko ezartzen dituen bideetatik.

Komenigarria zen, berebat, lehendakariaren testua, agiria- ren espiritu eta xedea, 1978ko Konstituzioan, foraltasun tradizionalaren aurrekari historikoetan, aurrekari estatutarioetan eta Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentzian nola txerta zitekeen ikuspegi unibertsitariotik aztertzea.

Jardunaldi hauek antolatzeko ekimena Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Konstituzional, Administratibo eta Zuzenbidearen Filosofia Sailarena izan zen. **José Manuel Castells** eta **Demetrio Loperena** zuzendari eta **Xabier Ezeizabarrena** koordinatzaile. Azterlan hau egiteko, jatorri ideologiko eta geografiko ezberdineko jurista ospetsuengana jo zuten; izan ere, ikuspegi diziplinarra anitz zateza lagungarria izango baitzen lehendakariaren Proposamenaren problematika juridiko-politikoaren egungo egoera politikoan hobeto ulertzeko.

## GAIAREN GARRANTZIA

Gutxi dira hasiera batean *Lehendakariaren Proposamenak* bezainbesteko polemika pizten duten gaiak. Buru hotzarekin, grinak albo batean utzita, Euskal Herriko egoera politiko korapilotsu honetan aurrera egiteko modurik ba ote dagoen aztertzeari ekiten diogun bakoitzean, frankismoaren osteko Trantsizioarekin eta Euskal Herriari eragin dion Erreforma Politikoaren ezaugarri bereziekin egiten dugu topo.

Lehendakariaren Proposamenak sostengua ematen dioten indarren korrelazioaren arabera egingo du aurrera edo atzera, baina edonola ere argi dagoena da ez klase politikoak, ezta komunikabide sozialek ere ezingo dutela agiri historiko hau Jardunaldi honetako aktetan jasota geldituko diren ekarpen zientifikoak kontuan hartu gabe interpretatu.

## TXOSTENGILEEN EKARPENAK

**Gregorio Monreal Ziaren** iritzian, foru aurrekariak dira lehendakariaren Proposameneko ahulgunea, testuak ez diolako aipamenik egiten gaur egungo egoera 1841 edo 1876an desagerturiko Foruekin lotzen duen trakto historiko edo juridikoari, eta ezta ere foru politika kulturalari ere. Baina eskubide historikoak behar bezala planteatuta ez dauden arren, bada loturarik foraltasun tradizionalaren eta egungo euskal autogobernuaren artean. Ildo berean, **Xabier Ezeizabarrenaren** ustez, eskubide historikoak dira Euskadik eta Nafarroak Instituzio komunitarioen aurrean ordezkartza zuzena izatea ahalbideratzeko formularik egokiena. Europako ikuspegiarekin jarraituz, **Michael**





**Keatinge**k adierazi zuen nazionalismo liberal eta moderatuek badutela zeresanik Europar Batasunean, honek funtsean Demokrazia plurinazionala izan behar duelako oinarrian. **Joxerramon Bengoetxearen** aburuz, Ibarretxeren Proposamenak Euskadi Europar Batasunaren baitan artikulatzeko irtenbide eta formulak bilatzeko bidea zabaltzen du, eta horrek, berebat, Estatuaren subiranotasunaren kontzeptua pixkanaka aldatzera eramango luke.

**Luis López Guerrarentzat**, euskal autonomiaren eraikuntza prozesua oso motel joan da azken hogeit urteotan. Estatuak instantziek ez dituzte bete diligentzia eta leialtasun konstituzional zein autonomikoaren betekizunak, ez dituztelako eskuduntzak Euskal Autonomia Erkidegoari transferitzeko behar-beharrezkoak diren bitarteko eta zerbitzu guztiak ezarri. **Miguel Herrero de Miñón**ek esandakoaren arabera, Euskal Herrian nortasun politiko ezberdin asko egoteak sortzen du arazoa. Problematika, hortaz, politikoa da batik bat; izan ere, lehendakariaren Proposamenak jasotzen duen erreforma instituzionalerako proiektuak legaltasuna errespetatzen du, espresuki esaten baitu Estatutuan eta Konstituzioan aurreikusitako prozedura jarraituko duela. Txostengilearen aburuz, Proposamen hau ez da independentista, baizik eta euskarri demokratiko zabal batean oinarrituz Espainiaren eta Euskal Herriaren arteko egoera eroso batera iristeko ahalegin positibo bat. **Javier Corcuera**k, ostera, bere burua *hiritar ez-nazionalista* modura definitu ostean, lehendakariaren Proposamena *egitismo esentzialista eta etnizista* zela adierazi zuen, Euskal Herria nazionalismoak egiten duen irakurketa berberarekin identifikatzen duelako. Herrero de Miñónek bezala, **Javier Cañok** ere lehendakariaren Proposamenaren bideragarritasun juridikoa eta legitimazio soziala azpimarratu zituen, baina ohartaraziz litekeena dela praktikan jartzeko orduan arazoak sortzea, eta, hori horrela, eragile sozial eta politikoen borondate politikoaren esku dagoela Proposamenak aurrera egitea. Ondoren, **Iñaki Agirreazku**enagak Ibarretxe Plana, sostengu gutxi jaso duela-eta, ahula dela azpimarratu zuen, eta, horregatik, orainari begira moldatua dagoen Egitarau politikoa dirudiela, baina geroan aurrera egiteko aukerak eskainiz.

**Ferrán Requejoren** iritzian, Ibarretxeren proposamenak euskal herritarren izaera nazionalarekin bat egingo duen autogobernua lortzeko asmoari erantzuten dio, betiere legaltasun konstituzional eta estatutarioaren barruan. Diseinaturiko eredia uztargarria da Demokraziaren Teoriaren egungo kontzeptuekin eta nazionalki anitzak diren herrialdeetako akordio federaletan. Bestetik, **Enric Argullolek** adierazi zuen erreforma estatutario orok,

Proposamenean bertan ere aipatzen den bezala, hiritar guztiengatik askatasuna bermatu beharra daukala. **Gurutz Jáuregui**, berriz, Proposamenaren edukian eta beraz eraginkor egiteko tresnetan murgildu zen. Bere ustez, zenbait alderdi nola interpretatzen diren arabera etorriko dira Konstituzioarekin bat. Era berean, Proposamenaren alderdirik eztabaidagarrienak ere ukitu zituen, hots, euskal nazionalitatea, subiranotasuna eta autodeterminazio eskubidea. **Iñaki Lasagabasterren** aburuz, Euskal Herriak bere etorkizunaren gainean erabakitzeak kontsultatua izateko daukan eskubidearen aintzatespena da lehendakariaren Proposamenaren edukia gako. Zentzu honetan, **Marc Carrilloren** iritzian, Ibarretxeren Planeko zenbait puntuk beharrezko egiten dute Konstituzioa eta Estaturua erreformatzea, bereziki Elkarketa Libreko Estatuaren formularen bidez euskal berezitasuna instituzionalizatzeari, botere judiziala ezartzeari eta autodeterminazio eskubideari dagokienez. Bestetik, **Juan José Solozábal**ek adierazi zuen Eusko Jaurlaritzak ez daukala erreferendum bat egiteko eskuduntzarik, eta, halakorik egingo balu, Auzitegi Konstituzionalak helegin egingo lukeenez, kontsulta esekita geldituko litzatekeela.

**Bartolomé Claveroren** iritzian, Ibarretxeren Planak *Nafarroaren bide maximizatu* moduko bat bilatu nahi du, eta Konstituzioak aurreikusitako euskal eskubide eratzailaren aintzatespena sustatzen du, Nafarroarentzat ere zilegi dena. Bere ustez, ez balego lehendakariaren Proposamena 1978ko Konstituzioan lekutzerik, Nafarroako autonomiak ere ez luke bertan kokapenik izango. Foru Komunitatearekin jarraituz, **Demetrio Loperenak** azaldu zuen funtsik gabeak direla Ibarretxeren Proposamenari leporatzen zaizkion anexionismo salaketak, Planak Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Erkidegoko hiritarrei honako eskubidea aitortzen dielako: beren garapenerako eta ongizate politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalerako egokien iruditzen zaizkien lotura politiko eta barne harremanak izateko eskubidea, *muga bakarra beren borondatea izanik*. Iparraldeari dagokionez, berriz, **Igor Ahdok** azpimarratu zuen Ipar Euskal Herriarekin elkarrengitako aukerak aurreikusten dituzten proposamen politiko guztiak xehetasunez aztertu behar dutela lurralde hauen garapena, batik bat nongotar izatearen sentimenduari dagokion arloa.

**Roldán Jimeno Aranguren**

**Euskal Herriko Zuzenbide Historikorako Institutua**  
(UPV/EHU)

# Familia eta laneko ardurak bateragarri egiteko neurriak nahikoak al dira?

Garai batean emakumearen lana zen etxea eta familia zaintzea. Berdintasun aldarriak entzuten hasi zirenean, eta emakumea etxetik atera eta kanpoan lanean hasi denean sortu dira arazoak. Nola egin bateragarri familia eta etxeko ardurak? Bateragarritasuna lortzeko erakundeek zenbait neurri hartuta dituzte. Seme-alabak dituzten Familien Laguntzarako Erakunde arteko Plana onartu zuen Eusko Jaurlaritzak iaz. Plan honen barnean sartuta daude neurri horietako batzuk. Neurri horiek nahikoak ote diren jakiteko, euskal gizartea ordezkatzeko duten lagun batzuen iritzia ezagutu nahi izan dugu.



**Nere Urrestarazu**  
ELAko Genero Politika eta  
Gazteen arduraduna

Gaur egun, estatuak zein Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituzten neurriak ez dira nahikoak lan publikoa edota etxetik kanpo egiten den lanaren eta bizitza pribatuaren inguruan sortutako betebeharrak asetzeko.

Lehenik eta behin, emakumeei soilik bideratutako neurriak dira, ez emakume eta gizonen berdin eskaintakoak. Hortaz, hasieratik gaizki planteatuta daude. Berritoki, emakumearen ardurapean gelditzen dira lan erreproduktiboa eta etxean egiten diren ordaindu gabeko lanak. Hala, haurrak zaintzeko lanaldi murrizketa, esate baterako, emakumeak eskatzen du, horrek dakartzan zigorrekin: lan merkatutik urruntzea, mendetasun ekonomikoa, kotizazioak galtzea, erretirorako kaltea e. a.

Bestalde, seme-alabei dagokienez onartu diren dekretuak mugatuak dira, eskaintzen diren zerbitzuak oso urriak direlako benetako eskaera zein den kontuan izanda. Haurtzaindegia eta haur hezkuntzako eskolen sarea sortzea eta finantzatzea beharrezkoa da familiaren gastuak murrizteko eta lan merkatuan pertsona guztien jarraipena errazteko.

Bukatzeko, neurri hauek pertsona nagusi edota ezinduen inguruko beharrak alde batera uzten dituzte. Nire ustez familiaren inguruan sortzen diren behar guztiak kontuan hartu behar dira.

**Kany Peñalva**  
Atzegi Adimen Urriko  
Pertsonen Aldeko  
Gipuzkoako Gurasoen  
Elkarteko koordinatzailea



Albano Elorri  
(Atzegi aldiakaria)

Adimen urriko seme-alabak eta haien gurasoak ez dira kontuan hartzen neurri horietan. Ez dago horiei zuzendutako neurri zehatz, berezirik. Sarritan neurri horiek ekonomikoak izan ohi dira, baina nik uste dut hobe dela norberaren unean uneko egoera jakina kontuan hartzea. Gaur egun buru-belarri lan egiteko obsesioa dago, lanak hartzen dituzten bizitzaren esparru guztiak... Egoera jakinak, baldintza pertsonalak kontuan hartu behar direla uste dut, lana familiaren ardurarekin bateragarri egiteko. Hori horrela egingo balitz dena hobeto joango litzateke.

Dirua garrantzitsua da, baina ez ditu arazo guztiak konpontzen. Guk adimen urriko pertsonak gizartean integratzea bilatzen dugu, eta hori lortzeko behar dena ez da dirua, jendea kontzientziatzea baizik. Gizarteak jarrera baikor bat hartzea, elkartasuna ematea eta benetako neurriak hartzea eskatzen dugu.

Gure elkarteko gurasoek, esate baterako, bilera asko egiten dituzte eta, hori dela eta, sarritan lanetik irteteko baimena eskatu behar izaten dute. Guraso horiek lanean malgutasun handiagoa izan dezaten nahi genuke; bakoitzaren egoera kontuan hartzea eskatzen dugu azken finean, eta baita egoera horietara egokitzeko aukera emango duten neurriak ere. Azkenean, hori guztia seme-alabaren eta ongi izatearen mesederako izango da.

**Gema Artola**  
Asfamogi-ko (Gipuzkoako Guraso Bakarreko Familien Elkarte) presidentea



Neurri horiek, printzipioz, baikorrak direla uste dugu, baina guraso bakarreko familientzat ez dira nahiko. Gurasoetako bat seme-alaba txikiak zaintzeko etxean gelditzera behartzen dute neurri horiek, eta lana partzialki edota aldi baterako uztera eramaten dute. Orduan non dago bateragarritasuna? Guraso bakarreko familien kasuan, familiaren kargu egiten dena eta diru-sarrerak dituen pertsona bakarra denean, neurri horiek pentsaezinak dira. Hori dela eta, gure ustez benetako bateragarritasun-neurriak hauek dira: seme-alabek eskatzen duten arreta eta laneko ardurak uztartzen laguntzen dutenak. Horrela bada, honelako neurriak ezinbestekoak direla uste dugu:

- Haurtzaindegietan plaza gehiago eskaintzea eta horien prezioak murriztea.
- Guraso bakarrekoa izateaz gain, familiak soldata baxua jasotzen badu, diru-laguntzak eskuratzea.
- Haurtzaindegietako ordutegiak zabalago egitea eta lanorduetara egokitzea: txandakako lana edo dendetako ordutegia dutentzako adibidez.
- Zerbitzuen dibertsifikazioa eta berrikuntza: ordukako haurtzaindegia, ludotekak, umezainak, etab.



## **Txaro Arteaga** **Emakunde-ko zuzendaria**

Uztarketa errazteko neurriak emakumeei zuzendutako neurri gisa hartzen dira herrialde batzuetan. Dena den, garrantzitsua da kontuan izatea gizarte guztiak parte hartu behar duela zailtasun horiek gainditzen, gizonezko eta emakumezko lanbide-profesional bat gure etxeko eta familiako ardurekin bateragarri egiteko ditugun arazoak gainditzen alegia. Baimenak, lanaldi murrizketak edota eszedentziak emakumeentzat soilik hartzen badira, horrek emakumeen kontratazioa gelditu dezake eta beraien aurka joan daiteke.

Hau guztiagatik nahitaezkoa da uztarketa neurriak behar bezain desberdinak eta osagarriak izatea; horrela izateak familiei alternatiba ezberdinen artean aukeratzeko eta bere beharrei era egoki batean erantzuteko posibilitatea emango die, garapen pertsonala eta profesionala izateko aukerak murriztu gabe. Alternatiba

ezberdinen artean aukeratzeak familietan barne-negoziazio prozesu bat izatea eskatzen du eta, ondorioz, horrek pertsonak hezteko eta sentsibilizatzeko beharra erakusten du. Hori guztia zertarako? Bada, pertsona horiek berdintasunerako eskubidea onartzeko eta eguneroko bizitzan dagoen erresistentzia gainditzeko.

Euskal Administrazioa esparru ezberdinetan politika ezberdinak egiten ari da. Politika horien bidez, pertsonak zaintzeko zerbitzuak egokitu eta sortu egiten ditu; horrez gainera, gizonezkoek aitatasun-baja hartzeko eta erabiltzeko sustapen politikak eta abar lantzen ditu.

Neurri hauek sendotuz, dibertsifikatuz eta hedatuz joan beharko lirateke pixkanaka-pixkanaka; bikoteek ardurak modu berdintsuan banatzeko baldintza objektiboak sortzea da helburua.



## **Natalia Díez-Caballero** **Hirukide Familia Ugarien Elkarteetako Euskal Federazioaren zuzendari exekutiboa**

Familia eta lana uztartzeko Eusko Jaurlaritzak hartutako neurriak, oro har, egokiak direla uste dugu.

Biztanleriak ere, orokorrean, ongi jaso ditu. Dena den, aurrera eramateko trabak sumatzen ari dira, bi arrazoiengatik bereziki. Lehenengo arrazoia da enpresak ez daudela behar bezain kontzientziatuta gai honekin, eta bere langileen egoerarekin sentsibilizatu ere ez direla egiten.

Bigarren arrazoia da lanaldi murrizketa edota eszedentziak eskatzeko beldur direla langileak. Lanpostua galtzeko beldurrak eta utzialdi horiek jasotzen dituzten hitzarmen gutxi egoteak eragiten du hori.

Gainera, gizonezko gutxiak eskatzen dute lan-utzialdia, %3k soilik. Beraz, gizonezkoak etxeko lanen banaketarekin sentsibilizatzeko bide luzea dago egiteko oraindik.

Lana eta familia uztartuko dituzten neurri berriak hartu behar dira. Hasteko, eskaera guztia beteko duen haur eskola gehiago sortzea eta eskola hauen ordutegia zabalagoa izatea beharrezkoa da. Beste aukera interesgarri bat Administrazio Publikoaren laguntzarekin haur eskolak lantokietatik gertu eraikitzea da.

Sentsibilizazio kanpaina bat egitea ere nahitaezkoa dela uste dugu, enpresa, sindikatu eta merkatariari zuzendua bereziki. Era berean, aipatutako neurri guztiak eta etorkizuneko beste batzuk koordinatuko dituen organo bat sortu beharko litzateke. Organo horrek sindikatu eta patronalarekin elkartzeko ahalmena izan beharko luke, erakunde, enpresa eta langileen artean akordioak lortzeko.



## **M<sup>a</sup> Montserrat Rejado** **Eusko Jaurlaritzako Justizia saileko Gizarteratze zuzendaria**

Euskal Autonomia Erkidegoan lan-bizitza familia bizitzarekin uztartzeko orain arte abian jarri diren neurriak harrera ona izaten ari dira. Lehendabiziko urratsa eman da, baina neurri horiek oraindik osatu gabe daude, eta

beraz, aurrera egiten jarraitu behar da.

Seme-alabak dituzten *Familien Laguntzarako Erakunde arteko Plana* onartu zuen Eusko Jaurlaritzak iaz. Plan honen baitan daude neurri horiek. Eszedentzia bat edota lanaldi murrizketa bat hartzeko aukera ematen dute; hori gauzatzeko babes ekonomiko garrantzitsua edota haurrak haur eskola batera eramateko aukerak ematen ditu. Familiak hautaketa egiteko aukera ezberdinak izatea lortu nahi da, eta familiak berarentzat egokiena izango dena aukeratu dezan lortu nahi da. Ahalik eta bizitza orekatuena egiteko aukera emango dion edozein neurri izan daiteke baliozkoa.

Uztarketak gizarte osoari eragiten dio: enpresariei, sindikatuei, dendetako ordutegia dutenei... Giza sentsibilizazio handiagoa behar da, eta horretan lanean jarraitu behar da. Gaur eguneko neurriak funtsean haur txikiak dituzten familiengan pentsatuta planteatu dira, baina Familia Bizitza Zikloko beste aroetara heda liteke (gogoan izan, esaterako, besteen laguntza behar duten pertsonen zaintza) batzuen eta besteen arteko konbinazio egokia; horrek familiak asebetetze maila handiagoa izatea erraztuko luke eta, ondorioz, giza ongizate handiagoa ekarriko.

**Nerea Pikabea**  
**Kazetaria**

# Teledemokrazia aktiboa:

## Toki-administrazioaren garapenerako bultzada berria

Ezagutzaren aro berrian, herriak izan behar du informazioaren gizartearen oinarri. Hori dela eta, Jungo esperientzia oso aurrekari baliagarria izan da demokrazia elektronikoaren inguruan. Aurrekari horrek berehalako eragina izango du informazioaren gizartean, Europar Batasunaren barnean, Espainiako administrazioan eta Iberoamerikako herrialdeetan. Orain gutxi egin da Sydney-ko Teknologia Institutuarekin lankidetzaz hitzarmena, eta Massachussets-eko Teknologia Institutuko dekanok (hots, William J. Mitchell-ek<sup>1</sup>) zuzeneko ez den partaidetza elektronikoaren alde aurki egingo duen erronka ere aipatu beharra dago.

Junek 2.401 biztanle ditu eta Granadatik 4 kilometrora dago. Junen 2001eko ekainaren 28an egin zen izaera elkarreragileko lehenengo on line “udalbatza” edo osoko bilkura, eta Internet bidez ikusteko aukera egon zen; horixe izan da, bai Espainian, bai nazioartean lehenengo “esperientzia pilotua”. Garbi dago lege aldetik izugarritzko “hutsunea eta erronka” dagoela tokiko demokraziek informatikaren alorrean duten etorkizunaren aurrean. Baina Jungo udalbatzak jada ireki ditu bide oso zehatz batzuk, horren guztiaren inguruan aurreragiteko eta arau batzuk ezartzeko.

1999ko abenduaren 28an, Jun herriak (Granada) eskubide berri bati bide eman zion, herritarren eta agintarien artean harremanak izateko modu guztiak irauliko zituen eskubide bati: **teledemokrazia aktiboa**. Hiri-estatuak zeuden garaiko lehenengo demokrazia haietan oinarriturik egongo zen, baina hasierako atenastar haiek in alderatuta, teledemokrazia honek Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) kontuan hartuko ditu. Mundu guztiko 181 egunkarik eman zuten aurkikuntza horren berri, zenbaiten lehen orrialdean, gainera. Horren guztiaren lehenengo ondorioa honakoa da: Internet eta IKTak herritarren oinarritzko eskubidetza hartzea<sup>2</sup>, eta herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioak eman ditzakeen beste edozeinen pareko izatea. Deklarazio hori erronka izugarria da; izan ere, Jungo herritar batek udalbatzaren laguntza jasotzen ez badu, justizia-auzitegira jo lezake Jungo informazioaren gizarteko piramidean lehengoratu diezaioten, udalbatzak onartutako konpromisoa kontuan izanda.

Internet Jungo herritarren oinarritzko eskubidetza hartzeak askotariko erantzunak izan ditu herritar aktibo<sup>3</sup> deitutakoarengan. Eta horretaz gain, toki-administrazioen lidergoa azpimarratu du.

1. Teledemokraziaren ondorio juridikoak

Egilea: Carlos López López, Granadako Diputazio Probintzialeko idazkariordea

2. [Aikens, 1997] Aiken, Geoffrey S., American Democracy and Computer-Mediated Communication: A case study in Minnesota, doctorate of philosophy in social and political sciences, Cambridge University. April, 1997.

3. Sartori, Giovanni, 1993 Democrazia. Cosa è, Milano, Rizzoli.

Herritarrek beraiek, udalbatza egin baino hamabost egun lehenago, jorratuko diren aztergaiak proposatzen dituzte, eta beharrezkoak diren agiriak aurkezten dituzte udal-espeditantean sartzeko. Horrela, udalbatza egingo den egunean, eztabaidan nahiz onarpenean parte hartuko dute. Hori guztia, “kapilarizazio”-prozesu bati esker gertatuko da: GIMAN izeneko baliabidea sortu da (hots, Informazioaren Gizarteko Garapenerako Gestorea izeneko langilea) eta horrek herritarren dinamizatu egiten ditu. Horrela, “Aurrerapen soziala norberaren aurrerapenaren ondorioa da” esaldia erladdatu eta beste hau bihurtuko du: **garrantzitsuenak pertsonak dira, ez ekipamenduak eta teknologia**.


Hala ere, informazioaren gizarteko piramidearen gailurra (teledemokrazia aktiboa deitutakoa) lortzeko, beharrezkoa da aurretiaz beste urrats bat ematea: alfabetatze digitala. Ezinezkoa baita prestakuntza egokirik gabe tresna batzuk erabiltzen jakitea, eta, gainera, aurretiaz aitortutako eskubide batek hori bermatu egiten zuen. Horrela bada, Jungo herritarren %80k jaso zuten alfabetatze digitala<sup>4</sup>, eta zenbait pertsonak alfabetatze osoa jaso zuten. 2.401 bizilagunetatik 1.600 joan ziren alfabetatze-geletara. Eta ikastera joan ez ziren gehienek IKT erabiltzen bazekiten, bai unibertsitatean ikasita, baita lanean edo etxean ikasita ere. Horrela bada, oso hila-bete gutxitan (18 hilabetean, hain zuzen ere) IKTetako piramide oso bat eraikitzea lortu zen, gobernu-mota berri bat garatu ahal izateko. Eta hori guztia aurrera eramateko agiria Brusela eta Issy Les Molineaux (Paris) hiriek ere izenpetu zuten, joan den urteko azaroaren 8an Junen egin zen teledemokrazia aktiboari buruzko lehenengo mundu-mailako konferentzian. Konferentzia horren ondorioa Jungo Deklarazioa izan zen. Agiri horretan, munduko hiri garrantzitsuenek (Paris, Helsinki, Londres, Viena, Erroma, Amsterdam...) informazioaren gizartea sustatzearen aldeko konpromisoa hartu zuten, eta horretarako Global Cities Dialogues sortuko dute. Horrela bada, Junek eta Bruselak 2001eko maiatzaren 16an Parisen arestian aipatu dugun Helsinkiko Deklarazioa sinatu ondoren, Jun demokrazia aktiboaren jaioterri eta eredu garbiena bihurtu da, bertan burutu baitzen, munduan lehenengo aldiz, udalbatza elkarreragilea, 2001eko ekainaren 28an, hain zuzen ere. Udalbatza hartan, tokiko erakunde bateko herritarrek udal-aurrekontuak sarearen bidez proposatu eta onartu zituzten. Harrezkero, udalbatza guztiak horrela egiten dira, bai ohikoak, bai ezohikoak; nahiz talde politikoek nahiz herritarrek deituta eguneko aztergai “aurretikoaren” bidez.<sup>5</sup>

4. [London, 1995] London, Scott, Teledemocracy vs. Deliberative Democracy: A Comparative Look at Two Models of Public Talk, Journal of Interpersonal Computing and Technology, Vol. 3 No. 2, April 1995, pp 33-55.

5. “Crónica de la primera sesión plenaria en España retransmitida en Internet por el Municipio de Jun”. Carlos López López jaunaren komu-

**“Gizarte berrian urtebete galtzeak atzean uzten ari garen gizartean hamarkada bat baino gehiago galtzea esan nahi du”**

**José Antonio Rodríguez Salas**



Horrela bada, komunikazioa eta elkarrizketa izateko, eta informazioa lortzeko aukerak asko hobetuko dira, bai herritarrenak, bai erakundeenak, bai administrazioarenak, bai enpresenak, bai saltokienak eta bai gizarte-eragileenak ere. Eta hori guztia PORTAL INVERSO deitutako proiektua abian jartzearekin, goreneko mailara iritsiko da. Proiektua aurrera eramateko, Sidneyko Teknologia Institutuaren laguntza izango dute, eta 2003ko maiatzaren 25ean, beste esperientzia bat egingo dute: lehenengo aldiz jarriko dute abian boto elektronikoa (sare bidez eta bertaratu gabe) bihurtu emateko aukera. Horretarako, Massachussets-eko Teknologia Institutuaren laguntza izango dute. Boto elektronikoren esperientzia hori abian jartzeko, sarearen beste aldean dagoen pertsona zein den jakitea beharrezkoa da. Hori dela eta, gorputzeko energiaren bidez zein pertsona den jakingo dute. Horrela, bada, prozedura biometriko oso aurreratuz baliatuta, pertsona horren ordez beste norbait aritzea eragotziko dute. Izan ere, gaur egungo sinadura elektronikoren bidez ez dakigu sarearen beste aldean dagoena benetan ote den berak dioen pertsona.

Baina gaur egun, indarrean dauden legeak kontuan hartuta, ez da erraza prozesu elkarreragile batean parte hartu ahal izatea. Carlos López López jurista entzutetsuak (Granadako Diputazioko idazkariorde nagusiak) egindako txosten batean adierazten denez, herritarrek udalbatzetan parte hartzeko, Kode Zibileko 2. artikulua hartu behar da oinarritzat. Artikulu horretan adierazten denez, legeak, arauak... murgilduta dauden unera egokitu behar dira. Beraz, kasu honetan, informazioaren gizartera egokitu behar dira, eta, horretarako, udalbatzan atsedendaldi

telematikoa sortu behar da eguneko aztergaien puntu bakoitzaren aurretik eta ondoren, herritarrek parte hartzeko aukera izan dezaten.

Hiriak herritarren helburuen mandatari izango dira. Pertsonak dira protagonista nagusi. Ezagutzaren gizarte honek aurrera egingo du, baldin eta bere aktibo garrantzitsuenaren aldeko erronka egiten badu; hots, giza baliabideen, pertsonen aldekoa. Baina ezin dugu honen inguruan hausnartu gabe amaitu, eta are gutxiago, honako datuak ikusita: Espainiako alkateen %7,13 (8.200 alkateetatik 581, alegia) soilik daude sarera konektatuta; aitzitik, kaleko jendearen %21,3 dago konektatuta. Eta horrek honakoa adierazi nahi du: herritarrengatik hurbilen dagoen arduradun politikoak ezagutzaren gizartean teknofobia badu, nekez iritsiko dela bere herritarrengana.

Junen ezagutzaren gizartean parte hartzeko eskubidea berariaz aitortuta ez balego, inoiz ezingo zatekeen abian jarri A.I.R.E gailua (baliabide exogenoak hartzeko eta informazioa lortzeko antena da, eta proiektu guztiak lantzeko baliabideak eskuratzeko aukera eman digu), ezta haririk gabeko konexio-sistematik aurreratuenak, SMS mugikorren alerta-sistema eta aurki, UMTS-plataforma (Florentzia, Atenas eta Jun herrien artean lantzen ari garena), Keelan proiektua eta teknologia berrien alorreko beste hainbat proiektu ere. Ekimen gehienak herritarrek onartu egiten dituzte, behetik gora egiten direlako eta infoaberatsen eta info-pobreen artean alderik ez duen gizarte berria sortzen delako.

nikazioa Guadalajaran (Mexiko) egin zen *Organización Interamericana de Cooperación Intermunicipal*-en (OICI) XXV. Kongresuan. 2001eko urriaren 24tik 26ra.

**José Antonio Rodríguez Salas**  
**Jungo Udaleko alkateordea**




**La comunicación escrita en los negocios**

Paula Garrett; Steve Dennis  
Prentice Hall  
Madrid, 2002  
145 or.

Zeure burua orri zuri baten aurrean ikusten duzunean, ba al duzu konfiantza nahikoa idazten hasteko? Konprobatu al duzu inoiz zure idazkiek hartzailearengan duten eragina? Liburu hau gida bat duzu, ideiak antolatzen, helburuak zehazten, arrazoibideak ebaluatzen, hutsuneak identifikatzen... lagunduko dizun gida, hain zuzen ere. Liburu bera duzu egileek proposatzen duten estiloaren adierazgarririk onena: oso erraz irakurriko duzu.

Adibideak enpresa arlokoak badira ere (memorandumak, gutunak eta aurkezpen-agiriak lantzen dira gehienbat), ematen dituzten jarraibideak edozein idazki prestatzeko erabili daitezke. Azken bi kapituluetan gaztelaniaz ondo idazteko zenbait gomendio aurkituko dituzu, gramatika eta estilo arlokoak.




**Konbentzitzeko argudiatu**

J. Dolz; A. Pasquier  
Nafarroako Gobernua. Hezkuntza eta Kultura Saila  
Iruña, 2002  
94 or.

Eztabaida pribatuak, auzokoekin edo lagunekin ditugun eztabaidak, ikasleen edo lankideen artean izaten direnak, egunkarietako editorialak, iritzi orrialdeak, kritika artikulak... eguneroko bizitzan argudiatu beharra izaten dugu behin baino gehiagotan. Baina, ba al dakigu egoki argudiatzen?


Liburu hau hutsune hori betetzera dator. *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako* lehen ziklorako ikasleekin erabiltzeko aproposa duzu, hain zuzen ere ikasgelan hizkuntza eta literatura arloan argudio diskurtsoak lantzeko. Materiala, berez, Genevako bi espezialistek sortu eta Nafarroako irakasle talde batek itzuli, egokitu eta espermentatu du. Egileen proposamen honek *ahozko eta idatzizko adierazpena irakats daitekeela eta sistematikoki irakatsi behar den ustean* du oinarri; eta, horretarako, sekuentzia didaktikoen bidezko lan-eredua proposatzen dute.



**Eleiza eta euskera**

Labayru Ikastegia-BBK  
Bilbao, 2002  
90 or.

Hogeita bost urte bete dituela-eta, Labayru Ikastegiak, BBKrekin batera, liburu batean jaso nahi izan ditu eliza eta euskararekin lotutako argitalpenak. Izan ere, elizak sortu zuen Labayru Ikastegia eta elizak hartu izan du bere gain euskara aztertu eta zabaltzeko lan eskerga (garai batean, eskualde askotan, komunikatzeko modu bakarra euskara zen). Argitalpenak sailkatuta aurkituko dituzu: *eleizbarrutiak, dotrinak, predikazinoa, euskeraren defendatzaileak, eleiz liburuak, hiztegiak, gramatikak, argitalpen didaktikoak, itzulpenak, musika, literatur sormena...*




**Farmazia Hiztegia**

Farmazialari Euskaldunen Elkarte  
Donostia, 2002  
227 or.

Farmazialari Euskaldunen Elkarteak egindako ahaleginari esker, bai botikariek, bai osasun arloko gainerako profesionalak beste tresna bat izango dute eskura euskaraz lan egin ahal izateko. Egileek arloari dagozkion bi mila eta bostehun hitz jaso eta datu-base batean sailkatu ondoren, UZEI erakundearekin batera findu eta biribildu dute lana.

Erregistroa asko zaindu da, eta, botikariek bezeroekin izaten duten harreman-mota kontuak izanik, hizkera arrunteko izendapenak aukeratu dira. Sarrerak bietara daude: euskara-gaztelania eta gaztelania-euskara.



**El poder de las presentaciones efectivas  
Guía práctica de comunicación oral para directivos**

Ricardo Velilla  
Ed. Gestión 2000  
Barcelona, 2002  
127 or.

Ez da ez, inondik inora, errezeta magikoa, baina laguntza modura erabil dezakezu jendaurrean hitz egin behar baduzu: nola prestatu hitzaldia? Zein estilo erabili? Ikus-entzuzko materiala erabiltzea komeni da? Zer ez da egin behar? Nola erantzun galderei? Erantzunak oso modu labor eta praktikoan emango dizkizu egileak bere esperientzietan oinarrituta.

# Spitalfields-eko dama

**L**ondreseko hirian, Spitalfields izeneko auzoan, arkeologia-lanetan ari ziren 1999an. Erdi Aroko ospitale eta hilerri bat ari ziren aztertzen.

Ustekabean, baina, askoz ere aurkikuntza garrantzitsuagoa egin zuten: erromatar garaiko hilobia.

Kare-harrizko kutxa handiaren barruan berunezko zerraldoa eta, haren barruan, giza hezurdura eta zenbait hondar agertu ziren.

Jakina denez, Julius Caesar bera saiatu zen aurrenik Ingalaterra bereganatzen, Kristo aurretiko 50. urtean, baina Claudius inperadoreak menderatu zuen, azkenik, lehen mendearen.

Horretaz, erromatarrek 300 urtetan agindu zuten gaur egun, gutxi gorabehera, Ingalaterra den horretan.

*Londinum* hiria zuten hiriburua, gaurko Londres, eta bertan kokatu ziren erromatar administrazioaren erakunde nagusiak. Ez da, beraz, harrizkoa hiri horretan aztarnak aurkitu izana.

Spitalfields-eko aurkikuntzak, baina, txundituta utzi zituen arkeologoak. Emakume gazte batenak ziren hezurak: luze etzanda, ezker besoa bular gainean zuen eta buru azpian erramu-ostozko burukoaren hondakinak. Hilobiaren tankerak pertsona aberats edota familia onekoa erakusten zuen: berunezko zerraldoa fin-fin landua, Txinako setazko jantziaren hondarrak, Siriako urrezko hariaren arrastoak, arbeltzezko kutxatxoak zein kristal finez egindako bonbiltxoak. Itxura guztien arabera, Kristo ondorengo laugarren mendekoa zen hilobia, 375 urtekoa, gutxi gorabehera.

Gorpuzkinak aztertzerakoan izan ziren, alabaina, ezustekorik handienak. Hezurrek emakumezko gazte bat zela adierazi zuten, hogei bat urtekoa, eta, oxigeno-isotopoen analisien arabera, ez Ingalaterran jaio eta bizitakoa, Mediterranean klimako leku beroagoan baizik. Analisi genetikoez, berriz, gaur egungo euskaldunen tankerako ADNaren antzeman zuten.



**Londreseko printzesa** deitu zioten hedabideek eta baita **Spitalfields-eko dama gaztea**.

Gehiago oraindik: Londreseko Museoko teknikariek printzesaren aurpegia itxuratzea lortu zuten, buru-hezurra oinarri harturik. Erdian duzu orain mila eta seihun urte baino gehiagoko Londresen hilobiratutako euskal printzesaren aurpegia.

Nola iritsi ote zen Ingalaterrara Euskal Herriko Hegoaldetik?

Euskaldun presentziaren arrastorik bazen, lehendik ere, *Britannia*-n:

Sydenham izeneko herri batean Traianus inperadorearen garaiko harri idatzi baten *Cohors II Hispanorum Vasconum* aipatzen da, hots, Hispaniako baskoiek osatutako talde militarra. Talde beraren arrastoak, bestalde, Budapest-en, *Mauritania Tingitana*-n (Marruekosetan), Alcalá del Río-n (Sevillan) y Nimes-en (*Galia Narbonense*-n) ere agertu dira.

Bigarren mendean (K.o. 105. eta 122. urteetan) *Cohors Secundae Vasconorum civium Romanorum*, hots, erromatar hiritar euskaldunen bigarren koortea ere Ingalaterran egona zela badakigu. *Cohors Primae Fida Vardullorum civium Romanorum equitata milliaria* izenekoa, berriz, giputz fidelez osatutako zaldun-taldea zen eta Ingalaterrako iparraldean, Hadrianoren Hesia babesten lehen mendetik 3. menderaino ibili zen. *Cohors Primae Aquitanorum* (Akitaniarrak) ere agertzen dira han-hemenka. Euskal guda-gizonek, horretaz, Erromatar Inperioan barrena beren karrera militarra egiten zutela adierazten digute aipamen horiek.


Spitalfields-eko dama, agian, euskal buruzagi erromatartu baten alaba ala emaztea izan zitekeen, *Ager Vasconum* deitutako lurralde beroetan jaio eta hazi ondoren *Londinum*-eko lanbro artea hogeitsu urterekin hila.

Sit terra levis. Lurra arin izan bezaio.

**Eneko Oregi**  
**Itzultzaile Zerbitzu Ofizialeko burua**



# Hitz gurutzatuak




## EZKER ESKUIN

1. Errusiako hiriburua. 2. Bizkaieraz, sobera. Iparraldean, eguzki.
3. Zazpigarren artea. Garai, aldi. 4. Interjekzioa. Pluralean, labore hautsa.
5. Kontsonantea. Txori mota. Iodoaren sinbolo kimikoa. 6. Arrainen arrautza. Alkoholen bukaeran. 7. Euskal sindikatu abertzalea. Trebea. 8. ...-tak, erlojuaren hotsa. Edo. 9. Landetako hiria.

## GOITIK BEHERA

1. Ez estu. 2. Berrogeita hamabi. Norat atzizkia. 3. Irlandako irla. Ugaztun mota. 4. Animalia adarduna. K birritan. 5. Sufrearen sinbolo kimikoa. Euskal lurraldea. Bokala. 6. Suari dario. Irabazi aditzaren infinitiboa.
7. Izana. Bilo. 8. Bizkaieraz, iratzea. Burdinola. 9. Hegazti mota.

# Letra zopa



LUMA

Aurki itzazu letra zopa honetan zortzi ezagutza-arloren izenak. Hitzak ezker eskuin, goitik behera eta diagonalean azalduko zaizkizu.

## Euskararen inguruko zenbait telefono

- AEK: 94/424 17 10
- Argia: 943/37 15 45
- EIZIE: 943/27 71 11
- Euskal Herrian Euskaraz: 943/ 44 56 65
- Euskal Irrati Telebista (EITB): 94/ 603 10 00
- Euskal Kulturaren Erakundea: 00-335-59 93 25 25
- Euskaldunon Egunkaria: 943/30 02 22
- Euskaltzaindia: 94/415 81 55
- HABE: 943/02 26 00
- Helduen Euskalduntzerako Euskaltegia (HEI): 948/17 76 70-54
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP): 945/01 76 00
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza: 945/01 81 10
- Ikas eta Ari (IKA): 945/28 89 22-44
- IRALE: 945/27 44 00
- Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala (IZO): 945/01 76 56. FAX: 945/01 76 03
- Kultura Saila: 945/01 94 64
- NAPIko Euskaltegia: 948/42 33 19-51
- NAPIko Euskara eta Hizkuntz Komunitarioak Zerbitzua: 948/42 33 49-51
- Udal Euskaltegiak: 94/440 62 17 943/80 52 54
- UZEI: 943/47 33 77

## Soluzioak

Arkeologia, Astronomia, Biologia, Matematika, Fisika, Kimika, Zuzenbidea, Filosofia,

### Letra zopa

9. Okita.  
Araba. 1. 6. Ke. Irabaz. 7. Ukana. Ile. 8. Ira. Ola.  
1. Zabal. 2. LIL. Rat. 3. Man. Erbia. 4. Oreina. KK. 5. S.  
**Goitik behera:**

9. Akize.  
5. B. Enara. 1. 6. Arraba. OL. 7. LAB. Abila. 8. Tik. Ala.  
1. Mosku. 2. Lar. Ekt. 3. Zinea. Aro. 4. Ail. Innak.  
**Ezker eskuin:**

### Hitz gurutzatuak